



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko urriaren 16a

119. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- 11-25/PES-00279. Galdera, Desgaitasunaren Arreta Integralerako "Valle del Roncal" Zentroko egoiliarre-kiko protokoloei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- 11-25/PES-00288. Galdera, anbulantzietako medikuen eta erizainen arrisku bereziko osagarria aldatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- 11-25/PES-00289. Galdera, Tuterako Osasun Barrutiko Oinarrizko Osasun-laguntzako medikuen produktibitatea kontabilizatu eta/edo adjudikatzean izandako irregularitasunei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- 11-25/PES-00290. Galdera, Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioko zuzendaritza-taldeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- 11-25/PES-00291. Galdera, Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioko plantillari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- 11-25/PES-00292. Galdera, Satrustegiko Kontzejuko autobus-geralekuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- 11-25/PES-00293. Galdera, Arrotxapeko Osasun Etxean hitzordua lortzeko zailtasunei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- 11-25/PES-00295. Galdera, LHko praktikak kudeatzeko tutoretza-orduak murrizteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- 11-25/PES-00296. Galdera, Luzaideko ibiltokia hobetzeko proiektuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- 11-25/PES-00299. Galdera, lurzoru urbanizaezinean jarduera oro aldi baterako debekatzen duen abuztuaren 5eko 58/2025 Foru Agindua onesteko oinarri gisa harturiko txosten tekniko edo juridikoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- 11-25/PES-00300. Galdera, lurzoru urbanizaezinean jarduera oro aldi baterako debekatzen duen abuztuaren 5eko 58/2025 Foru Agindua onetsi zela-eta Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak egindako jarduketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).

- 11-25/PES-00302. Galdera, Aire Bidezko Konektibitatearen Mahaiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- 11-25/PES-00303. Galdera, Eliza Katolikoak immatrikulatutako Nafarroaren ondareari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- 11-25/PES-00304. Galdera, Nafarroako Gobernuak Ebroren arroko 2022-2027 Plan Hidrologikoaren proiektuari aurkeztutako alegazioei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- 11-25/PES-00306. Galdera, Ribaforada II-La Dehesako ureztalurrak modernizatzeko obrak egiteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- 11-25/PES-00307. Galdera, Martzillako behaketa- eta harrera-zentroan joan den ekaineko gertakarien ondoren izandako lan-iraizpenei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- 11-25/PES-00308. Galdera, Martzillako behaketa- eta harrera-zentroan dauden bidaidetik gabeko atzerri-tar adingabeei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- 11-25/PES-00309. Galdera, Artikako behaketa- eta harrera-zentroeiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- 11-25/PES-00310. Galdera, Europako funtsei buruzkoa (Next Generation, LIFE, INTERREG, PEPAC edo Europar Batasunaren bestelako programa batzuk). Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- 11-25/PES-00311. Galdera, Suhiltzaile Zerbitzuan baso-zereginetarako talde bat sortzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (32. or.).
- 11-25/PES-00312. Galdera, lehentasunez erosi eta atzera eskuratzeko eskubidea aplikatzearen emaitzei buruzkoa eta NASUVINSako Alokairu Poltsaren bilakaerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (33. or.).
- 11-25/PES-00313. Galdera, Pirinioetako Planari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (34. or.).
- 11-25/PES-00314. Galdera, Unibertsitateari buruzko foru-lege proiektua onesteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (38. or.).
- 11-25/PES-00315. Galdera, Ultzaman bidaidetik gabeko adingabe migratzaileen zentro bat irekitzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (39. or.).
- 11-25/PES-00316. Galdera, Nafarroako Etxebizitza Hutsen Erregistroa berraktibatze eta eguneratzeko tresna informatikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (39. or.).

F saila:
GALDERAK

11-25/PES-00279. Galdera, Desgaitasunaren Arreta Integralerako "Valle del Roncal" Zentroko egoiliarrekiko protokolei buruzkoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Javier Arza Porrás jaunak Desgaitasunaren Arreta Integralerako "Valle del Roncal" Zentroko egoiliarrekiko protokolei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko irailaren 5eko 98. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko irailaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Arza Porrás jaunak 11-25/PES-00279 galdera egin du, idatziz erantzun dakion. Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguakontseilariak ematen dion informazioa:

Ez dago idatzizko prozedurarik, zentroetan gertaturiko gorabeherak senitartekoei jakinarazteko modua zehazten duenik arau orokor gisa. Hala ere, berriazko protokoloetan bai, adierazten da nola helarazi informazioa familiei (esate baterako, erorietarako protokoloa, abusu-protokoloa, eraso-protokoloa, medikazio-okerrei buruzko protokoloa eta abar). Horietan guztietan zehazten da nola jakinarazi behar den gertaturiko egoerari buruzko informazioa.

Familiak martxoaren 18an egiaztaturiko lesioen berri ez zen eman, zentrotik bertatik aitortu zen bezala. Geroago, guk egiaztatu dugunez, zentroak familiari astero bidali zion egoiliarraren bilakaerari eta harekin eginiko esku-hartzei buruzko xehakapen bat.

Kasu zehatz honetan, aipatu lesioen aurkikuntzaz geroztik, zainketa zorrotz bat egin da, eta baztertu daiteke haien zergatia beste erabiltzaile batzuek eraso egin izana denik. Alabaina, azkenaldi honetan objektibatuta zegoen erabiltzaile horren artegatasun psikomotorra areagotuta zegoela, eta horrek hein batean justifika lezake halabeharrezko lesioak agertu izana.

Egoera horri aurre egiteko, Desgaitasunaren Arreta Integralerako "Valle del Roncal" Zentroko langileek zainketa areagotu eta osasun mentaleko zentroari kontsulta eskatu zioten, egoiliarraren egoera klinikoa aztertzeke, lesio horien agerpenaren zioa izan bailiteke.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko irailaren 29an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguakontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-25/PES-00288. Galdera, anbulantzietako medikuen eta erizainen arrisku bereziko osagarria aldatzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak anbulantzietako medikuen eta erizainen arrisku bereziko osagarria aldatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko irailaren 5eko 98. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko irailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Leticia San Martín Rodríguez andreak idatzizko erantzunerako aurkezturiko galdera dela-eta (11-25/PES-00288), zeinaren bidez jakin nahi baita ea Nafarroako Gobernuak legegintzaldi hau bukatu aitzin aldatuko al duen Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Ospitalez kanpoko Larrialdi Zerbitzuko bizi-euskarri aurreratuko anbulantzietako medikuen eta erizainen arrisku bereziaren osagarria, Nafarroako Gobernu-

ko Osasuneko kontseilariak honako hau jakinarazten du:

Orain arte, arrisku horiek identifikatu eta ebaluatzeari eta prebentzio-neurriak proposatu eta garatzeari lotu gatazka, eta informazio hori helarazi diegu horretarako eskaera egin diguten kolektibo horien ordezkari.

Osagarri hori, kasua bada, ezarri ahal izateko, beharrezkoa litzateke indarreko araudia aldatzea eta finantzaketa edukitzea; eta, gaur den egunean, oraindik ez da ezagutzen zer dirubide egonen den 2026ko aurrekontutik.

Epe ertainerako plangintza ekonomikoan ez dugu, gaurkoz, arriskuagatik ordainsaria emateko aurreikuspenik txertatu, baizik eta, aipatu den bezala, gastua ebaluaziora eta horren arabera prebentzio-neurriak aplikatzera bideratzen da.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko irailaren 12an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-25/PES-00289. Galdera, Tuterako Osasun Barrutiko Oinarrizko Osasun-laguntzako medikuen produktibitatea kontabilizatu eta/edo adjudikatzean izandako irregulartasunei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak Tuterako Osasun Barrutiko Oinarrizko Osasun-laguntzako medikuen produktibitatea kontabilizatu eta/edo adjudikatzean izandako irregulartasunei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko irailaren 5eko 98. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko irailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Leticia San Martín Rodríguez andreak honako galdera hau egin du, idatziz erantzun dakion: "Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak jaso al du jakinarazpenik azken bi urteotan Tuterako Osasun Barrutiko oinarrizko osasun-laguntzako medikuen produktibitatearen esleipenaren eta/edo kontabilitatearen arloko irregulartasunak direla-eta? Zer neurri hartu dira horri dagokionez?" (11-25/PES-00289). Hona hemen Nafarroako Gobernuaren Osasun kontseilariaren erantzuna:

Ez da jaso irregulartasunak salatzeko jakinarazpen formalik, baina bai Tuterako Osasun Barrutiko (TOB) osasun-eskualde oinarrizko bateko langile baten mezu elektronikoren bat, zeinetan zalantzan jartzen baitzuen TOB bereko beste eskualde oinarrizko batzuetan indarreko legedia betetzen ari zenik produktibitate-esleipenetan.

O-NOZen Kudeatzailtzan mezu hori jaso ostean, horri buruzko informazioa eskatu zitzaion Tuterako Osasun Barrutiko Kudeatzailtzari, eta haien ustez mezuan erreferentzia egiten zitzaion kasu zehatzaren baldintzak zehaztu zituzten; bada, baztertuta gelditu zen irregulartasunen bat egon zenik.

Edonola ere, eskualde oinarrizko batean, aipatutako horretan edo beste edozeinetan, behar izaten ahal den aparteko jardueraren esleipena eskualde oinarrizko bakoitzetik bertatik kudeatzen denez, eta kontuan hartuta legegintzaldi honetan Parlamentuak zenbait aldiz premiau duela azter daitezten ordainsari handienak metatzen dituzten langileen egoerak, egoki iritzi zen horrekin lotutako neurriren bat proposatzea, negoziatzea eta ezartzea.

Ildo horretan, 2024ko apirilean, proposamen bat helarazi zitzaion Osasun Mahai Sektorialeko sindikatuei, guardiengatiko eta produktibitateagatiko ordainsariak esleitzeko eta jasotzeko arauei buruzkoa, hiru xederekin:

- Bermatzea zentro bakoitzean sortzen diren beharrak argitara emanen direla, edozein langilek adierazi ahal izan dezan bere zentroetatik kanpo guardiak edo aparteko jarduera egiteko prest dagoela.

- Zerrendak eratzea sustatzea, errazagoa izan dadin beharrak sortzen direnean horiei erantzutea eta guardiak eta aparteko jarduera zentro bakoitzetik kanpo modu ekitatiboan banatzea, eta beti zentroko bertako beharrak estali ostean.

- O-NOZen Zerbitzu Zentralekin harremanetan jartzeko modu bat bideratzea, banaketa ekitatiborako arauei dagozkien ez-betetzeak jakinarazteko balioko duena.

Behin negoziazio horiek itxita, eta zegoen erregelamenduzko araudiaren ondoriozko aldaketa izapidetu ostean, 6/2025 Foru Dekretua onetsi zen, otsailaren 12koa, zeinetan aipatutako xede horiek betetzeko honako arau hauek jasotzen baitira 2. artikuluan:

«2. artikulua. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko lanpostuen ordainsari osagarriak zehaztu eta esleitzen dituen martxoaren 3ko 44/2003 Foru Dekretua aldatzea.

Bat. 7 bis artikulua gehitzen da. Hona hemen testu berria:

“7.bis artikulua. Guardiaren eta produktibitatearen araberako ordainsaria esleitzeko eta jasotzeko arauak.

Arau hauei jarraituz parte hartuko dute Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileek guardietan eta beteko dituzte produktibitate aldakorraren ordainsariarekin pagatzen diren premiak:

1. Lantoki bereko langileek lehentasuna izanen dute guardiak egiteko eta produktibitate-osagarriaren bidez ordaintzen diren ezohiko jarduerak egiteko. Baldin eta lantoki bateko premiei ezin bazaie erantzun bertan dauden profesionalekin edo langileak kontratatuz, orduan betetzen ahalko dituzte beste lantoki batzuetako langileak, eta, ahal dela, lantokiak mugakideak izanen dira.

2. Langileek ezin izanen dituzte guardiak egin beren lantokitik kanpo, baldin eta beren lantokian bete gabe badaude etengabeko arreta bermatzeko beharrezkoak direnak.

3. Langileek ezin izanen dute beren lantokitik kanpo ezohiko jarduerarik egin, baldin eta beren lantokian beharrezkoa bada ezohiko jarduerak egitea ohiko lanalditik kanpo eta hori ezin bada bete.

4. Aurreko apartatueta ezarritakoaren ondorioetarako, honako hauek hartuko dira lantokitik: osasun-eskualde oinarrizkoak, oinarrizko osasunlaguntzaren eta osasun mentalaren kasuan, eta zerbitzuak, laguntza espezializatuaren eremuan.

5. Guardiaren edo ezohiko jarduerak modu ekitatiboan banatuko dira egin nahi dituzten profesional guztien artean.

6. Aldez aurretik egiten ahalko dira norbere lantokitik kanpo guardiak edo ezohiko jarduerak egiteko prest dauden profesionalak biltzen dituzten zerrendak, zeinak ordenatuko baitira ezohiko jardueren eta guardien ordu gutxien egin dituztenekin hasita, eta berdinketa gertatuz gero, lantokitik hurbilen daudenekin hasita, eta berdinketak badirau, antzinasunaren arabera. Azken urtean egonaldia amaitu duten fakultatibo espezialistek lehentasuna izanen dute betetzen zailak diren lanpostuetan guardiak egiteko.

Norbere lantokitik kanpo guardiak edo ezohiko jarduerak egiteko prest daudela adierazten duten langileek lehentasunez onartu behar dituzte mugakide diren osasun-eskualde oinarrizkoetan betetzen zailak diren lanpostuak betetzeko eskaintzen zaizkienak.

7. Aurreko arauan ezarritakoaren arabera zerrendarik ez badago edo badagoenak bide ematen ez badu beharrezko guardia guztiak edo ezohiko jarduera guztiak betetzeko, zentroek gutxienez 48 ordu lehenago jakinaraziko dute zer guardia eta ezohiko jarduera ezin den bete bertako langileekin, beste lantoki batzuetako langileak, nahi badute, horretarako prest ager daitezen, salbu eta premiazko, bat-bateko eta justifikatutako kasuetan.

8. Zentroko zuzendaritzak edo zerbitzuko buruak gainbegiratu du nola antolatzen diren guardiak eta nola egiten diren ezohiko jarduerak, egiaztatze aldera artikulua honetan ezarritako arauetara egokitzen direla. Guardiak eta ezohiko jarduerak egin nahi dituztenek uste badute banaketa ekitatiboa ez dela errespetatzen, horren berri ematen ahalko diote Profesionalen Zuzendaritzari".

Gainera, araudi horren berri eman zitzaion, zenbait bileratan, barruti guztietako osasun-eskualde oinarrizkoetako zuzendaritzari, hura azaltzeko eta zalantzei erantzuteko. Orobat, araudiaren xedea azaltzen zuten gutunak bidali zitzaizkien, bai eta hura aplikatzeko jarraibideak ere, eta aplikazio informatiko bat garatu zen AUZOLAN intranetean, eta

ezagutzera eman zen. Aplikazio horren bidez, zentroetako zuzendaritzek beren beharrak jakinarazten ahal dituzte, eta zentroetako langileek izena ematen ahal dute hala nahi izanez gero, eta beste osasun-eskualde oinarrizko batzuetan guardiak edo aparteko jarduera egiteko prest daudela adierazi.

Laburbilduz, inoiz gertatu izan bada ere produktibitateagatik ordaintzen den guardiak edo aparteko jarduera behar besteko gardentasunik gabe eta langile interesdunen arteko berdintasunik gabe esleitu izana edozein osasun-barrutitan, araudia berri da bi alderdi horiek sendotze aldera, eta ekintzak egin dira horrekin lotutako irregulartasunik gertatu ez dadin, eta, gertatuko balira, haiek salatzeko eta erregularizatzeko bide bat egon eta eza gutu dadin».

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko irailaren 11n

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-25/PES-00290. Galdera, Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorio-ko zuzendaritza-taldeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eneka Maiz Ulaiar andreak Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioko zuzendaritza-taldeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko irailaren 5eko 98. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztutako 11-25/PES-00290 galdera idatziari dagokionez, Hezkuntzako kontseilariak honako informazio hau ematen du:

Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorio-ko oraingo zuzendaritza-taldea honako pertsona hauek osatua dago:

– Zuzendaria: Arantza Lorenzo de Reizábal andrea.

– Ikasketaburua: Leyre Lisarri Camacho andrea.

– Idazkaria: Marco Bellizzi Ederra jauna.

Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioko oraingo zuzendaritza-taldea ezohiko izendapena du, zeina koiunturalki hasi baitzen 2024ko martxoaren 22an aitzinako titularrak kargu-gabetuta sortutako postua, behin-behinean, betetzeko. Izendapena 2026ko ekainaren 30era artekoa da. Hezkuntza Departamentuaren eta Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioko Zuzendaritzaren artean lankidetzarik dagoen, kontseilari

honek baieztatzen ahal du, Departamentu honen mendeko beste edozein zentroekin bezala, Kontserbatorioko Zuzendaritzak harreman eta koordinazio ona du Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzuarekin, Langileen Araubide Juridikoaren Zerbitzuarekin, Hezkuntzako Ikuskapenaren Zerbitzuarekin eta ikastetxearen funtzionamendu onerako behar diren guztiekin. Koordinazio hori gauzatu da Hezkuntza Departamentuan berean eta Kontserbatorioko instalazioetan.

Azkenik, Hezkuntza Departamentuari dagokio bermatzea merezimendu-lehiaketa deitzen dela Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatoriorako zuzendaria hautatzeko, indarrean den legeriarekin bat etorritik, ekainaren 7ko 1/2024 Legean xedatutakoa betetzeko ezinbesteko foru arau-garapena gertatzen denean, Legearen Azken Xedapenetako Bederatzigarrenak aipatzen duen ezartzeko egutegia aldarrikatu ondotik. Era berean, haren 32., 33. eta 34. artikuluetan jasotakoak eskatzen du Nafarroako

Goi Mailako Musika Kontserbatoriorako zuzendaria hautatzeko merezimendu-lehiaketa arautzen duen prozedura egokitzeko. Artikulu horiek honako hauek arautzen dituzte: goi-mailako arte-irakaskuntzen ikastetxearen zuzendaritza betetzen duen pertsona hautatzeko berariazko prozesua, zer eskakizun bete behar dituen, eta, hala badagokio, hezkuntza-administrazio eskudunak xede horretarako ezohiko izendapena egitea.

Hezkuntza Departamentuak asmo irmoa du Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioa merezimendu-lehiaketaren hurrengo ohiko deialdian jasotzeko.

Hori guztia jakinarazten dizut behar diren ondorioak sor ditzan.

Iruñean, 2025eko irailaren 23an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

11-25/PES-00291. Galdera, Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioko plantillari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eneka Maiz Ulaiar andreak Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioko plantillari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko irailaren 5eko 98. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztutako 11-25/PES-00291 galdera idatziari dagokionez, Hezkuntzako kontseilariak honako informazio hau ematen du:

Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan 95 pertsonak betetzen dituzte haren langile-

premiak Musika eta Arte Eszenikoen Katedradunaren irakasle-lanpostuan.

Haietako 66 baino ez dira lanaldi osoak, eta ondorioz, indarrean den araudiaren arabera, Estatuko irakasleen kidegoetako funtzionarioek betetzeko modukoak dira.

Gaur egun, 66etatik, irakasle funtzionarioek 33 betetzen dituzte.

Egonkortzeko prozesuetan 26 pertsona izendatu dira Estatuko irakasleen kidegoetako karre-rako funtzionario.

Plantilla finkatzen jarraitzeko, sartzeko beste deialdi bat lan egiten ari da, eta Musika eta Arte Eszenikoen Katedradunen kidegoko 18 plaza daude Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatoriorako.

Iruñean, 2025eko irailaren 23an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

11-25/PES-00292. Galdera, Satrustegiko Kontzejuko autobus-geralekuari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mikel Zabaleta Aramendia jaunak Satrustegiko Kontzejuko autobus-geralekuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko irailaren 5eko 98. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendia jaunak 11-25/PES-00292 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak zer konponbide edo ekimen eskainiko duen Satrustegiko Kontzejuko bizilagunek garraio publikoaren geroak bat izan dezaten, bakar bat bederen, euren herrian. Bada, Nafarroako Gobernuaren Lurralde Kohesiorako kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut:

Garraioen eta Mugikortasun Jasangarriaren Zuzendaritza Nagusiak ematen duen ekimena 242/2024 Ebazpenean jasotakoa da (242/2024 Ebazpena, urriaren 7koa, Garraioen eta Mugikortasun Jasangarriko zuzendariak emana, zeinaren bidez ezesten baita Arakilgo Ibarreko udalak

2024ko ekainaren 3an aurkeztutako eskaera, hau da, Satrustegiko Kontzejuko autobus-geralekua egokitzea, zerbitzu-prestazioa berreskuratzeko). Ebazpenean haxe adierazten da: Aitzinetik azaldutakoa kontuan hartuta, geroak hori ez da erabiltzen ahal errepide bidezko erabilera orokorreko bidaiarien garraio publiko erregularreko zerbitzuetan. Horrenbestez, ezeztatu egin zen, ez baitzen bideragarria zerbitzua behar bezala emateko ezinbesteko gutxienekoak betetzeko egokitzea. Tokiz ere ezin izan zen aldatu, hiri-bilbearen eta hiriarteko bideen ezaugarriak direla kausa. Hori horrela, Satrustegiko Kontzejuan zerbitzua ematen segitzeko aukera bakarra izan zen eskatu ahalako garraio-zerbitzuan sartzeko eta geldialdia entitatearen barruan egitea.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez. Horrez gain, datuak babesteko legedian ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. artikuluan jasotako xedeetarako soilik erabiltzen ahalko da emandako edukia, eta betebeharra egonen da Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoari men egiteko.

Iruñean, 2025eko irailaren 23an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

11-25/PES-00293. Galdera, Arrotxapeko Osasun Etxean hitzordua lortzeko zailtasunei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Domingo González Martínez jaunak Arrotxapeko Osasun Etxean hitzordua lortzeko zailtasunei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko irailaren 5eko 98. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko irailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínez jaunak informazio-eskaera egin du jakite aldera zertan den hitzordua lortzeko zailtasunak zuzentzeko eta atzerapen horiek epe optimoetara murriztea bermatzeko (48 edo 72 ordu gehienez ere) neurrien proiektua, eta zer epetan hartuko diren neurriok (11-25/PES-00293). Hona Nafarroako Gobernuaren Osasun kontseilariak ematen duen informazioa:

Erabilerraztasuna hobetzeko zenbait neurri hartu dira osasun-eskualde oinarritzkoetan, arlo hauetan zehazki: telefonoguneak, administrarien prestakuntza, fisioterapeuta eta psikologoak sartzeara eta akutuen eta kronikoen erizaintza-eredua ezartzea. Kupoen luzetarakotasunari eustera bideratutako beste zenbait neurri ere hartu dira.

Arrotxapeako kasu zehatzean, eta osasun-etxearen alboan egin zen elkarretaratzearen ostean, Oinarritzko Osasun Laguntzako Zuzendariordeak, Profesionalen Zuzendaritzaren eskutik, baterako lanari ekin diote, hasiera batean protesta sustatu zuen auzoko bizilagun-elkarterekin (RTX Auzolan), baina eragile gehiagok parte hartzeko aukera irekita, osasun komunitarioko gure estrategiarekin bat datorren lanketa komunitarioa egiteko.

Ekainean egin ziren lehenengo bilkurak, eta laster bigarren deialdi bat egiteko zain gaude.

Udan, parte hartzeko gonbita luzatu zaie zenbait eragile publikori (Iruñeko Udala, Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentzia, Ekonomia Sozialeko eta Laneko Zuzendaritza Nagusia, Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusia, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua, Osasun Zuzendaritza Nagusiaren koordinazio sozio-sanitarioa) eta eragile komunitariori (Mendialdea eta San Salvador nagusien elkarteak –RTX Auzolan elkarteak berak proposatuak–, Gurutze Gorria eta CARITAS). Guztiek ere baiezkua eman dute.

Lanek aurrera jarraituko dute urte osoan zehar, eta dokumentazioa helarazi zaie elkarteari eta gainerako eragileei, "Acción Comunitaria para ganar salud" gidan proposatutako metodologiari jarraituz lantzeko, hasiera batean, honako kontu hauek: motibazio eta igurikimene trukea; pertsona edo erakunde bakoitzak proiektuari laguntzeko dituen gaitasunak; zer ekarpen egiten ahal dion prozesu komunitarioari; eragile giltzarrien zerrenda; interes eta/edo mobilizazio handiena pizten duten gaiak; lurraldean lehenagotik dauden sareak; ekintza komunitarioko dinamikarako laguntza instituzionalak.

Barne-mailan, osasun-eskualde oinarritzkoaren egoera konparatiboa aztertzen ari gara (NOPLOren fitxekin), bai eta zentroko zuzendaritzak adierazitako arazoak (patologia muskuloeskeletikoekin eta osasun mentalarekin lotutakoak, besteak beste) eta elkarteari kezka gehien eragiten diotenak ere (ilarrak).

Horien helburua da berehalako irtenbideak aurkitzea eta aurrera egiten jarraitzea epe ertain eta luzeko neurri komunitarioak, erabilerraztasuna bultzatu eta eskarian eragiten ahal dutenak, proposatzeko lanean.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko irailaren 17an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-25/PES-00295. Galdera, LHko praktikak kudeatzeko tutoretza-orduak murrizteari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak LHko praktikak kudeatzeko tutoretza-orduak murrizteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko irailaren 5eko 98. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko irailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Geroa Bai talde parlamentarioak aurkeztutako 11-25/ PES-00295 idatzizko galderari dagokionez, Hezkuntzako kontseilariak honako informazio hau ematen du:

Lanbide Heziketako Sistemaren antolamendua garatzen duen uztailaren 18ko 659/2023 Errege Dekretuaren testu bateratuak, 166. artikuluan, hauxe esaten du:

“166. artikulua. Funtzioak, profilak edo irakasle-taldeak Lanbide Heziketako Sistemaren ikastetxeetan.

1. Administrazioek, beren plangintzarekin bat etorritik eta ezartzen dutenari jarraikiz, Lanbide Heziketaren Sistemako zentroetan, batez ere lanbide heziketako zentro espezializatuetan eta zentro integratuetan, sustatuko dute arian-arian egon edo sor daitezkeen figurak edo osa daitezkeen taldeak berrikuntzaren, nazioartekotzearen, lanbide-orientazioaren, ekintzailtzaren eta gaitasunak egiaztatzekeko prozeduraren koordinazioaren arloko funtzioak sustatzeko eta garatzeko. Ondorio horietarako, bete beharreko funtzioak eta profilak edo lantaldeak, Administrazio bakoitzak zer erabakitzen duen, honako hauekin bat etorriko dira:

a) Lanbide Heziketako berrikuntzako koordinazioa edo arduraduna.

b) Lanbide Heziketako nazioartekotzeko koordinazioa edo arduraduna.

c) Ikastetxeko tutore bat bederen talde bakoitzerako, ikasle kopuruaren arabera.

d) Ikastetxeko lanbide-orientazioko eta ekintzailtzeko zerbitzuaren eta gaitasun profesionalak egiaztatzekeko prozeduraren koordinazioa edo

koordinazioaren ardura, hartarako orientazio-departamenturik eduki ezean.

2. (Deuseztatua)

3. (Deuseztatua)

4. (Deuseztatua)

5. Administrazioek ikastetxeko tutore dualen koordinazioa arautzen ahalko dute, beste funtzio batzuekin batera ikastetxearen eskaintza osoan dimentsio duala aholkatu eta laguntzeko, enpresa-prospekzioa egiten duen pertsonarekiko koordinazioa ezartzeko eta, kasua bada, lan-poltsa dinamizatzeko.

6. (Deuseztatua)”

166. artikuluko puntu horiek Konstituzio Auzitegiaren epai baten ondorioz deuseztatu dira. (KAren 82/2025 epaia, martxoaren 26koa)

225/1998 Foru Dekretuak, uztailaren 6koak, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, Lanbide Heziketa eta Lanbide Hastapenerako Programak irakasten dituzten ikastetxe publikoetako irakasleen lanaldia eta ordutegia erregulatzen dituenak, 21. artikuluko 1. puntuan honako hau ezartzen du:

“Lanaldi osoko irakasleek 20 irakastordu izanen dituzte astean. Horien artean irakaskuntza lan zuzenekoak eta irakastordu gisa zenbatzen direnak sartuko dira.

Salbuespenez, zilegi izanen da hogeita bi irakastordura ailegatzea, gehienez, betiere ikastetxearen ordu banaketak hala eskatzen duenean eta beti haren barrenean.

Aurreko atalean ezarritakoari salbuespen gisa, Lanbide Heziketako prestakuntzako zikloetan eskolak ematen dituzten irakasleek, lantokiko prestakuntzaren ordutegian, hirugarren hiruilekoan, 22 ikastorduko lanaldia izanen dute astean, oro har. Orobat, kontserbatorioko musikari laguntzailearen lanak egiten dituzten irakasleei ere aplikatuko zaie lanaldiaren luzapen hori”.

Era berean, 22. artikulua 6. puntuak hau ezartzen du:

“Lantokietan prestatzeko moduluko arduraduna.

Lantokietan prestatzeko moduluko arduradunak hiru ikastordu eginen ditu astean, Bigarren Hezkuntzako Institutuetako Erregelamendu Orga-

nikoan ezarriko eginkizunetan. Ordu horiek ikasleek lantokietan prestatzeko moduluak egiatan zer ikasturtetan egin eta orduantxe sartuko dira”.

Aipatutako artikulua aplikatzearen ondorioz, Lantokiko Prestakuntzaren moduluak jasotzen zituen ikasketa-plana, oro har, indarrean izan den ikasturteetan, ikastetxei 3 eskola-ordu esleitzen zitzaizkien, 26. artikuluan jasota. Bestalde, 21. artikuluan aipatutako irakasleei gainerakoei baino 2 eskola-ordu gehiagoko lanaldia esleitzen zitzairen. Praktikan eta ikastetxeetako plantillak ikasturte bakoitzerako egiteko orduan, irakasle-orduak kentzea zekarren, kontuan hartuta ikastetxe bakoitzari proportzioz zegozkionak. Murrizketa zetorren, logikoa denez, egiten ahal zen eskola-orduen estaldura handiagoaren ondorioz, barne hartuta curriculumekoak, taldeak banatzeko orduak eta halakotzat hartutako beste batzuk, zeinak, irakasleek 22 orduko lanaldia izanik (2018ko Hezkuntza Kalitatearen aldeko ituna aplikatu zenetik 20 eskola-ordu dira).

2025/2026 ikasturte honetan, Lanbide Heziketa Dualaren eredu berriaren nahitaezko ezarpenarekin, desagertu egiten da ikasketa-planetik Lantokiko Prestakuntzako orokortasunez egon beharra. Halere, aurrerago adierazi bezala, behar diren antolamendu-neurriak hartu behar dira ikasketak amaitu ahal izatea eta titulu lorpena bermatzeko nori eta LH Dual berria ezartzean oraindik halakorik lortu ez duten ikasleei.

Dauden behar berrien ondoriozko baliabide-berrantolaketa honetan, 2025/2026 ikasturteari dagozkion plantillak egitean ez dira aplikatu ez Lantokiko Prestakuntzako orduen esleipenak, ezta dagokien irakasleentzako 2 eskola-orduko gehikuntza ere. Irizpide hori aplikatzearen ondorioz, ziklo bakoitzeko tutoretza dualerako eskola-ordua esleitzearekin batera, ikastetxeek, osotara, kontratutako 200 irakasle-ordu gehiago dituzte aitzineko ikasturteetan zegoen irizpidea aplikatu izan balitz izanen zituztenak baino.

Adierazi behar dut Erizaintzako Zainketa Lagun-garriak zikloari, zeinak 1990eko urriaren 3ko Hezkuntza Sistemaren Lege Organiko Orokorraren (LOGSE) babeseko ikasketa-plana baitu indarrean, berau ematen duten ikastetxeetan, Lantokiko Prestakuntzaren moduluaren arretarako hiru eskola-orduak eman zaizkiola. Irizpide hori utsiko zaio LOGSEren ondoko arau-garapenean oraindik ordeztu gabeko ikasketa-planak dituzten zikloetarako.

Tutoretza dualeko orduak ez dira murriztu, aitzinetik ez baitzegoen. 2024/2025 ikasturtean ikastetxeko tutore dualaren figura sortu zen, araudiak adierazi bezala, eta eskola-ordu bat esleitu zaio. Orobat, ikasturte hasierako jarraibideen 30.

puntuak adierazi bezala (534/2025 Ebazpena, abuztuaren 4koa, Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez onesten baitira Nafarroan 2025/2026 ikasturtean Lanbide Heziketako Sistemaren gradu-eskaintzak ematen dituzten ikastetxe publikoen antolamendua eta funtzionamendua, lanbide-heziketako programa berezietan eta irakaskuntzei dagokienez, arautu behar dituzten jarraibideak), honako irakasle hauek izanen dute eskumena enpresako edo pareko erakundeko prestakuntzaren plangintzan, kudeaketan eta garapenean:

- Ikastetxeko Kanpoko Lanbide Jardueren Departamentuko burua
- Zikloko tutore DUALA
- Heziketa-zikloko koordinatzailea
- Taldeko tutorea
- Azkenik, ikasturte bakoitzeko ikasleen enpresako edo erakunde parekatuko prestakuntzaren antolamenduan, kudeaketan eta garapenean ere hartuko dute parte heziketa-zikloaren dagokion mailan eskolak ematen dituzten irakasle guztiak.

Hori horrela, askotariko pertsonak esku hartzen dute enpresako prestakuntzaren jarraipena kudeatu, planifikatu eta egiteko.

Ikasturte hasierako jarraibideen 32. puntuak hau adierazten du:

«Bai Lanbide Heziketako ikastetxean bai enpresako edo erakunde parekatuko prestakuntzaren lantzen diren ikaskuntza-emaitzen jarraipena eta ebaluazioa koordinatuki egingen dituzte ikastetxeko edo enpresako tutore dualek, zuzeneko lankidetzan arituz ikaskuntza-emaitza partekatuz barne hartzen dituzten curriculumak dauzkan lanbide-moduluaren edo dauzkaten lanbide-moduluaren arduradun den irakasle, hezitzaile edo aditu bakoitzarekin.

Enpresako edo erakunde parekatuko prestakuntzaren jarraipenean zuzeneko lankidetzak egiteko, zuzendaritza-taldeak zilegi izanen du jarraibide honetan zerrendatutako irakasleei esleitzeko Nafarroako Irakaskuntza Publikoaren Kalitatea Hobetzeko Itunaren ondorioz zuzeneko irakaskuntzaren murrizketatik eratorritako bi eskola-orduetako bat, Ekitatearen eta Hezkuntza Kalitatearen aldeko Itunak ezartzen duenarekin bat etorritik. Orobat, eta aintzat hartuta Ekitatearen eta Hezkuntza Kalitatearen aldeko Itunaren xedatutakoa, eskola-orduetatik hartutako bigarren ordu bat esleitzen ahalko da xede horretarako, irakasle-taldeek edo departamentuek bere proposatuta. Ordu horiek irakasleen ordutegi pertsonalean kontsignatuko dira, eskola-

ordutzat hartutako orduen atalean, “LH-D” siglak erabilia.

Bestalde, enpresako edo erakunde parekatuko prestakuntzaren jarraipenerako esleitzen ahalko dira ikastetxeko zuzendaritzak beharrezkotzat jotzen dituen ordu osagarriak, hau da, astean zenbatzeko eskolarik gabeko ordu osagarriak. Enpresako edo erakunde parekatuko prestakuntzarako ordu horiek irakasleen ordutegi pertsonalean kontsignatuko dira, astean zenbatzeko “ordu osagarriak” atalean, “LH-D” siglak erabilia».

Horrenbestez, ikastetxeari autonomia uzten zaio egoki iritzitako orduak esleitzeko, dituen ezaugarrien eta ikasle bolumenaren arabera.

Enpresako prestakuntza jasotzen ari diren ikasleen jarraipenerako esleitutako orduetan, jarraipena telefonoz, posta elektronikoz, bideokonferentziaz eta aurrez aurre, edo egoki iritzitako bestelako bideak erabiliz, egiten ahal dute jarraipena.

Moduluen eta curriculumen plan zaharrak mailaka iraungitzen dira, eta baliokidetasun akademikoak

edo profesionalak ematen dira gaitasun-estandarrei lotutako modulu berriekin. Lantokiko Prestakuntzaren moduluari eutsiko zaio oraindik indarrean dagoen Hezkuntza Sistemaren Lege Organiko Orokorrak, 1990eko urriaren 3koak, araututako prestakuntza-zikloetan.

Lantokiko Prestakuntzako ikasleak taldeko ikasleak dira, horregatik, orain arte egiten zen bezala, arau-aldaketaren ondoriozko aldi iragankorretan, errekupeazio-plana prestatzen da moduluak bukatu gabe dituzten ikasleentzat. Zikloko irakasleak arduratzen dira planaz eta haren jarraipenaz. Kasu honetan, irakaskuntza-kargarik ez duen modulu izanik, eta araudiak adierazten duen bezala, sistemako beste elementu batzuetara igarotzen da, eta edozein irakaslek du betebeharra eta aukera ikasle horien jarraipenaz arduratzeko. (Ikus LOGSEtik LOErako iragate-aldia).

Iruñean, 2025eko irailaren 26an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegi

11-25/PES-00296. Galdera, Luzaideko ibiltokia hobetzeko proiektuari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak Luzaideko ibiltokia hobetzeko proiektuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko irailaren 5eko 98. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko irailaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak honako galdera idatzi hauek egin ditu (11-25/PES-00296): Zertan da Luzaideko ibiltokia hobetzeko proiektua? Noizko aurreikusten da obrak hastea eta obrek zer iraupen izanen dutela aurreikusten du Departamentuak? Bada, Nafarroako Gobernu-kultura, Kirol eta Turismo Departamentuko kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut galderari erantzunez:

– Martxoaren 13ko 50E/2025 Ebazpenaren bidez Turismo zuzendari nagusiak baldintzak onetsi zituen eta Tecnologías y Servicios Agrarios, S.A., S.M.E., M.P.ri (TRAGSATEC) aginduz Donejakue Bideko Luzaideko zatirako, hain zuzen N-135 errepideko 63-61 KP eta 59,4-57 KPetarako, alternatibean azterlana idazteko, Next-GenerationEU Europar Batasunak finantzaturiko Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan.

Uztailaren 31n, TRAGSATECek alternatibean azterlana aurkeztu zuen. Dokumentua igorri egin zaie Herri-lanen eta Azpiegituren Zuzendaritza Nagusiko Kontserbazio Azterlan eta Proiektuen Zerbitzuari, Garraioen eta Mugikortasun Jasangarriaren Zuzendaritza Nagusiko Garraioen Kudeaketa eta Antolamenduaren eta Mugikortasunaren Zerbitzuari, bai eta Ingurumen Zuzendaritza Nagusiko Ingurumen Ebaluazioko Zerbitzuari eta Biodibertsitatearen eta Arrantza Kudeaketaren Zerbitzuari ere.

Departamentuen ondorioak ezagutzeko zain gaude, esku hartzen duten eragile guztiek adostu-

tako zeharkako proposamena edukitzeko. Gainera, akordioa lortutakoan, Luzaideko Udalarari berari jakinarazi beharko zaio.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatzen dena betez.

Iruñean, 2025eko irailaren 25ean

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria: Rebecca Esnaola Bermejo

11-25/PES-00299. Galdera, lurzoru urbanizaezinean jarduera oro aldi baterako debekatzen duen abuztuaren 5eko 58/2025 Foru Agindua onesteko oinarri gisa harturiko txosten tekniko edo juridikoei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, lurzoru urbanizaezinean jarduera oro aldi baterako debekatzen duen abuztuaren 5eko 58/2025 Foru Agindua onesteko oinarri gisa harturiko txosten tekniko edo juridikoei buruzkoa, 2025eko irailaren 5eko 98. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako eta Nafarroako Gorteetako kide den foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, Nafarroako Gobernuari 11-25/PES-00299 galdera egin zion, idatziz erantzun zekion, emandako abuztuaren 5eko 58/2025 Foru Aginduari buruz. Bada, Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut eginiko galdera sortari erantzunez:

Zer txosten tekniko edo juridikotan oinarrituta eman da abuztuaren 5eko 58/2025 Foru Agindua, zeinaren bidez aldi baterako debekatzen baita lurzoru urbanizaezinean ezein jarduera egitea?

Segurtasunaren arloko goi-teknikariaren txosten teknikoa eta proposamen-txostena, 2025eko abuztuaren 5ekoak.

Zer organo tekniko edo zuzendaritza nagusik parte hartu zuten agindu hori prestatzen, baliozkotzen eta sinatzen?

Barne Zuzendaritza Nagusiak, Barneko Araubide Juridikoaren Zerbitzuak, Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuak eta Larrialdietako, Prebentzioko eta Babes Zibileko Zerbitzuak.

Agindua eman aitzin, egin al zitzaien kontsulta Landa Garapeneko, Ingurumeneko edo Industriako departamentuei?

Bai.

Eta nekazaritza- edo ekonomia-sektoreetako ordezkari?i?

Babes zibileko larrialdiek arrisku kolektiboak eta berehalako arriskuak dakartzate pertsonentzat nahiz ondasunentzat. Ondorioz, haien kudeaketak eskatzen du botere publikoak erabakiak azkar eta berehala hartzea, larrialdiari egoki erantzuteko eta sortutako arriskuak eta kalteak arintzeko, betiere kontsulta eginda, hartarako, Babes zibileko larrialdietan esku hartzeko eta laguntzeko zerbitzuei, eta haien artean ez daude galderan jasotako entitateak.

Ezarritako debekuaren inpaktu ekonomiko edo sozialaren ebaluaziorik egin al zen? Hala baldin bada, hori igortzerik ba al dago? Egin ez baldin bazen, zergatik ez zen egin?

Babes zibileko larrialdiak arrisku kolektiboko egoerak dira, arrazoi naturalek edo giza arrazoiek eragindakoak, eta pertsonen bizitza, ondasunak eta ingurumena arriskuan jartzen dituzte; ondorioz, haiek kudeatzeko erabakiak hartzeko orduan

pertsonak, ondasunak eta ingurumena babestea lehenesten da ekonomia eta enpresa arloko interesen gaitetik, halakoek eraginik badute, konponzen ahal baitira.

Nolanahi ere, hipotetikoki, botere publikoek larrialdiak kudeatuko balituzte hartu beharreko erabakien eragin ekonomikoetan oinarrituta, haien ebaluazio zuzenak barne hartu beharko lituzke hartu beharreko neurrien kostua nahiz ez hartzeak izanen lukeen kostua.

Zer irizpide objektibo erabili zen debekua lurralde osoan modu orokortuan aplikatzeko, eskualdeen, baldintza meteorologikoen edo jarduera-motaren arabera bereizi gabe?

Meteorologia arloko ez gain, bitartekoak mugatuak izatea.

Batetik, Obanos, Muruzabal eta Eneritz aldeko sute larriak eta NFK osoko erregaiaren egoerak tenkatu egin zuten Suhiltzaileen Zerbitzuak erantzuteko sistema osoa, eta mugatu egin zuten haien jarduera bestelako sute hipotetiko batzuen aurrean. Halaber, Espainia osoan antzeko egoera izateak mugatu egiten zuen elkarlanean aritzeko ahalmena, bai Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren aldetik, bai beste autonomia-erkidegoen aldetik, bitarteko gehiago igortzeko gaitasuna murriztuta baitzegoen.

Plan sektorialetan jasotzen al zen lege- edo arau-aurreikuspenik Barne Departamentuari ahalmena ematen zionik bere eskumen-esparrutik kanpoko jarduera ekonomikoak bertan behera uzteko?

8/2005 Foru Legeak, uztailaren 1ekoak, Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzkoak, 19. artikuluan xedatzen du babes zibileko agintariak, dagokion babes zibileko plana aktibatutik, aukera hau izanen dutela: “ekin-tza batzuk ez egiteko agindua ematea eta, beharrezkoa bada, derrigorrezko zerbitzu pertsonalak egiteko agintzea. Zerbitzu emate hori sortu den egoeraren eta norberaren ahalmenen arabera izanen da eta ez du, nahitaez, kalteordainik jasotzeko eskubiderik sortuko”, eta 32. artikuluan honako hau gehitzen du: “6. Larrialdien izaerak horretara behartzen baldin badu, babes zibilaren arloko agintari eskudunek aldi baterako bahitzen ahal dute ondasun-mota oro, eta beharrezkoak direnak behin-behineko esku hartzen edo okupatzen ahal izanen dituzte eta, kasua bada, jarduerak eten. Jarduketa horien ondorioz beren ondasun eta zerbitzuetan kalteak pairatzen dituztenek legeetan ezarritakoaren arabera kalte-ordaina jasotzeko eskubidea izanen dute.

7. Larrialdien izaerak horretara behartzen baldin badu, babes zibilaren arloko agintari eskudunek herritarren eskubideak ukitzen dituzten aginduak eta jarraibideak ematen ahal dute legeetan ezarritakoaren arabera, eta agindu eta jarraibide horien jasotzaileek nahitaez bete beharreko neurriak hartzen ahal dute, aplikatzeko den planak ezarritakoarekin bat edo larrialdiaren nahiz babestu beharreko ondasunen beharrezko horretara behartuz gero.

Hartzen diren neurri eskubide-murriztaileek, edo prestazio pertsonalak edo materialak ezartzen dituztenek, indarraldi mugatua izanen dute —larrialdiei aurre egiteko hertsiki beharrezkoa dena, hain zuzen ere—, eta larrialdien muntaren arabera izan beharko dute”.

Halaber, 17/2015 Legeak, uztailaren 9koak, Babes Zibileko Sistema Nazionalarenak, 7.bis artikuluan zera xedatzen du: “Larrialdien ezaugarriek hala eskatzen dutenean, babes zibilean eskudunak diren agintariak edonolako ondasunak konfiskatzen ahal dute aldi batez, baita beharrezkoak direnetan esku hartu edo aldi baterako okupatu eta jarduerak eten ere”.

Amparo López kontseilariak jaso al zuen legehohartarazpenik (barnetik nahiz kanpotik), 58/2025 Foru Agindua sinatu aitzin nahiz ondoren, neurriaren ilegaltasuna edo eskumen-gehiegikeria dela-eta?

Ez, ez baitago eta ez baita egon ez ilegaltasunik, ezta eskumen-gehiegikeriarik ere.

Babes zibileko larrialdia dugu aitzinean, eta hartutako neurriak departamentuko titularrak hartu zituen, zeinak babes zibilaren arloko eskumena baitu, eta hari dagokio, era berean, INFONA Plana zuzentzea 0., 1. eta 2. egoera operatiboetan.

Izan ere, ez da era horretako erabakirik hartzen den lehen aldia, eta antzeko jokabidea egon zen 2022ko suteetan.

Noiz eta zer formatutan hartu zen foru agindua “malgutzeko” erabakia? Nork eta zer txostenetan oinarrituta proposatu zen foru agindua malgutzea?

Hartutako neurriak modulatzeko joan ziren, arriskuaren eboluzioaren eta larrialdiko egoeraren arabera:

1.- Barne Zuzendaritza Nagusiko Larrialdieta, Prebentzioko eta Babes Zibileko Zerbitzuak egindako txostenarekin bat etorriz, eguraldi-egoerak larriagotu egin zuten Obanos, Muruzabal eta Eneritz aldeko baso-sutearen ondoriozko arrisku larriko egoera, eta horrek eskatzen zuen ezohiko neurriak hartzea bestelako sute-guneak agertzea eragiteko moduko jarduerak mugatzeko.

Ondorioz, eman zen 58/2025 Foru Agindua, abuztuaren 5koa, Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariak emana, zeinaren bidez debekatzeko baitzen, aldi baterako, Nafarroako Foru Komunitatearen lurralde osoan lurzoru urbanizaezinean nekazaritzako, basogintzako eta bestelako jarduerak egitea, baldin eta sua, makinak eta ekipamenduak erabiltzen bazituzten, eta haien bitartez deflagrazioen, txinparten eta deskarga elektrikoen bidez basoko suak sortzeko modua bazegoen.

2.- 2025eko abuztuaren 6an, Larrialdietako, Prebentzioko eta Babes Zibileko Zerbitzuak jakinarazi zuen indarrean zegoela oraindik Nafarroako Foru Komunitateko Oihanetako Suteetarako Herri Babeseko Larrialdi Plan Berezia (INFONA), 2. EGOERA OPERATIBOAN, baina Obanos, Muruzabal eta Eneritz aldeko sutea kontrolpean zegoela; hori horrela, sute-arriskuko egoeraren barruan, gutxitu egiten zen larrialdietako eta babes zibileko ekipoen tenkatzea.

Ondorioz, eman zen 59/2025 Foru Agindua, abuztuaren 6koa, Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariak emana, zeinaren bidez jarduera jakin batzuk salbuesten ziren Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariak emandako abuztuaren 5eko 58/2025 Foru Aginduaren bidez onetsitako debekutik, ulertutako aitzinetik sute adierazgarriak sortu gabeko jarduerak zirela.

3.- 2025eko abuztuaren 8an, INFONA 0. EGOERA OPERATIBOAN, egoki eta arrisku-egoeraren araberrako iritzi zitzaion baso-suteen arriskua prebenitzeko ezohiko neurri gisa erabakitako aldi baterako debekuak eguneratzeari, eta Nafarroako Foru Komunitate osoan, aldi baterako, debekatu zen lurzoru urbanizaezinean egin zitezkeen baso-suteak sortzeko arrisku handien duten jarduerak, aintzat hartuta azken hilabeteetan gertatutako suteetan ikusitako kausaltasuna.

Ondorioz, Larrialdietako, Prebentzioko eta Babes Zibileko Zerbitzuak proposatuta, 60/2025 Foru Agindua eman zen, abuztuaren 8koa, Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariak emana, zeinaren bidez eguneratzen baitira Nafarroako Foru Komunitateko lurralde osoan, baso-suteen arriskua prebenitzeko ezohiko neurri gisa, erabakitako aldi baterako debekuak, eta ondorioz gabe uzten baitira 58 eta 59 foru aginduak.

4.- 2025eko abuztuaren 13an, AEMETek emandako informazioarekin bat etorritik, abuztuaren 13 eta 14rako, suteak itzaltzeko egoera lagungarriak aurreikusten ziren, halakorik sortuz gero, ez baitzen haize bortizik aurreikusten eta tenperaturak nabarmen jaitsiko baitziren.

Ondorioz, Larrialdietako, Prebentzioko eta Babes Zibileko Zerbitzuak proposatuta, 61/2025n Foru Agindua eman zen, abuztuaren 13koa, Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariak emana, zeinaren bidez salbuespenez baimentzen baitira zereala uzteko lanak lehorreko lurretan 2025eko abuztuaren 14ko 20:00ak arte, Nafarroako Foru Komunitateko lurralde osoan, baso-suteen arriskua prebenitzeko ezohiko neurri gisa, erabakitako aldi baterako debekuen barruan.

5.- Azkenik, iragarpen meteorologikoa hobea egonik eta Larrialdietako, Prebentzioko eta Babes Zibileko Zerbitzuak proposatuta, 2025eko abuztuaren 17an, 62/2025 Foru Agindua eman zen, abuztuaren 17koa, Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariak emana, zeinaren bidez ondorioz gabe uzten baita abuztuaren 8ko 60/2025 Foru Agindua, Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariak emana, zeinaren bidez eguneratzen baitira Nafarroako Foru Komunitateko lurralde osoan, baso-suteen arriskua prebenitzeko ezohiko neurri gisa, erabakitako aldi baterako debekuak.

Nafarroako Gobernuaren aurkako salaketarik edo ondare-erreklamaziorik erregistratu al da foru agindu horren ondorioz?

Ez dugu ezagutzen hartutako neurrietako bakar baten ondorioz aurkeztutako ondare-erantzukizuneko erreklamaziorik edo salaketarik.

Gobernuaren barruan nork proposatu zuen neurria? María Chivite lehendakaria jakinaren gainean jarri al zen? Neurria bermatu al zuen?

Hartutako neurriak departamentuko titularrak hartu zituen, zeinak babes zibilaren arloko eskumena baitu, eta hari dagokio, era berean, INFONA Plana zuzentzea 0., 1. eta 2. egoera operatiboetan, Larrialdietako, Prebentzioko eta Babes Zibileko Zerbitzuak proposatuta.

Larrialdi guztietan ohikoa den bezala, Presidenteak une oro izan zuen egoeraren eta hartutako neurrien berri.

Zenbat ikuskapen egin ziren abuztuaren 5ean agindua betearazteko? Zehapenik ezarri al zen?

Larrialdi-egoerak iraun zuen egun guztietan, etengabea eta iraunkorra izan zen Udaltzaingoaren eta Guardia Zibilaren kontrol- eta ikuskapen-lana.

Ez dugu zehapenak paratu izanaren berririk.

Ba al dago pertsona fisiko edo juridikoren batek aginduaren ondorioz galera frogagarriak edukitzearen konstantziarik?

Ez dugu hartutako neurrien ondoriozko galera frogagarrien berririk.

Zer alde dago INFONAREN edukiaren eta kontseilariak egindakoaren artean? Non esaten da INFONAK jarduera ekonomikoa eteten uzten duela?

Nafarroako administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, egin behar dituzten babes zibileko oinarriko jarduketak hauek dira: arrisku egoerak aurreikusi eta horiei aurrea hartzea, plangintza, esku-hartzea, koordinazioa, zuzendaritza, normaltasunaren berreskuratzea eta herritarrei eta larrialdi-zerbitzuetako langileei informazioa eta heziketa ematea.

Plangintza-jardueraren barruan, babes zibileko planak daude, hau da, arrisku kolektibo larriko egoera, larrialdi, katastrofe edo hondamendi publiko baten aurrean eman beharreko erantzuna antolatzen duten baliabide nagusiak. Egoera horietan herritarrak, ondasunak eta ingurumena babesteko behar diren giza eta gauzako baliabideak mobilizatu, koordinatu eta zuzentzeko bideak ezartzen dituzte.

Hain zuzen, plan bereziak erantzuteko antolamendu-tresna orokorrak dira arrisku zehatzei buru egiteko, baldin eta halakoek duten izaeraren ondorioz berriazko metodologia tekniko-zientifikoa beharrezkoa bada, dela jarduera-sektoreengatik, dela larrialdi motengatik, dela jarduera zehatzengatik, eta Estatuko Administrazio Orokorrak haien erregulazioa ezartzen badu arrisku mota bakoitzari buruzko dagokion oinarriko plangintza-zuzentzarauaren bitartez. Planen tipologia horretan dago Nafarroako Foru Komunitateko Oihanetako Suteetarako Herri Babeseko Larrialdi Plan Berezia (INFONA).

INFONAREN helburua da administrazio publikoek oro har erantzun eraginkorra ematea baso suteen-

gatiko larrialdietan, eta behar dituzten baliabide eta bitartekoak jasoko dituztela bermatzea. Hain zuzen, Nafarroako Foru Komunitatearen titulartasunekoak diren baliabideen eta zerbitzuen antolaketa eta jardun-prozedurak ezartzen ditu. Plan horren bidez, Nafarroako Gobernuaren ekintza jaso nahi da, baso-suteengatik sortzen ahal diren larrialdiei arin eta modu koordinatuan aurre egin ahal izateko, betiere kalteak saihesteko, pertsonak eta ondasunak erreskatatu eta babesteko, herritarren segurtasuna zaintzeko, kaltetutako biztanleen bizi premia oinarrikoak asetzeko, lurraldeko arriskuak zehazteko eta larrialdiaren arrisku eta mehatxuen eragin kaltegarriak saihestera edo arintzera bideratutako neurri eta ekintzak planteatzeko.

Aitzitik, Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariak hartutako neurriak esku-hartzearen barruan hartutako neurriak dira, eta halakoak hartzeko, aitzinetik dagokion babes zibileko plana aktibatu behar dago.

Ez zen inola ere erabaki "jarduera ekonomikoa etetea". Aitzinetik jada azaldu ditugu hartutako neurrien irismena eta haien arau-estaldura.

Planteatu al da mekanismoaren bat jarduera eten izanak ukitutakoak ekonomikoki konpentsatzeko?

Ez da halakorik pentsatu, eta berriz diot ez dugula hartutako neurrien ondoriozko galera frogagarri berririk.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 213.6 artikuluan xedaturikoa betez.

Iruñean, 2025eko irailaren 23an

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilaria: María Amparo López Antelo

11-25/PES-00300. Galdera, lurzoru urbanizaezinean jarduera oro aldi baterako debekatzen duen abuztuaren 5eko 58/2025 Foru Agindua onetsi zela-eta Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak egindako jarduketei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, lurzoru urbanizaezinean jarduera oro aldi baterako debekatzen duen abuztuaren 5eko 58/2025 Foru Agindua onetsi zela-eta Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak egindako jarduketei buruzkoa, 2025eko irailaren 5eko 98. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak 11-25/PES-00300 galdera egin du idatziz, suaren foru aginduari buruz. Bada, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dizut galderari erantzunez:

58/2025 Foru Agindua sinatu aitzin, kontsultarik egin al zitzaion zure departamentuari edo departamentuko zuzendaritza nagusietakoren bati? Hala ez baldin bada, egokia ikusten duzu hartutako erabakia?

Oihanetako Suteetarako Herri Babeseko Larrialdi Plan Berezia (INFONA) aktibatzeagatiko larrialdi-egoerari buruzko berariazko araudia Barne Departamentuko Larrialdietako, Prebentzioko eta Babes Zibileko Zerbitzuaren eskumena da. Nolanahi ere, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua harremanetan egon zen Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Departamentuarekin, Nafarroako Larrialdietarako Aholku Bartzordearen esparruan, Foru Aginduaren lehen eta ondotiko aldaketako proposatzeko eta helarazteko (59/2025 FA, abuztuaren 6koa; 60/2025 FA, abuztuaren 8koa; 61/2025 FA, abuztuaren 13koa edo 62/2025 FA, abuztuaren 17koa), lehen debekuak kentzeko eta suteen bilakaerara eta egoeretara egokitzen joateko.

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren ustez, baldintza tekniko edo meteorologiko nahikorik ba al zegoen 2025eko abuztuaren 5ean nekazaritzako, abeltzaintzako eta basogintzako jarduera erabat gerarazteko Nafarroako lurralde osoan?

Aitzinetik adierazi bezala, sutea dela-eta Nafarroako Babes Zibileko Lurralde Plana (PLENA) aktibatzeagatiko larrialdi-egoerari buruzko berariazko araudia Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Departamentuko Larrialdietako, Prebentzioko eta Babes Zibileko Zerbitzuaren eskumena da.

Departamentuak ba al du egun horretan bilketa-, laborantza-, ereite- nahiz abeltzaintza-kanpainaren bat modu kritikoan eten izanaren konstantziarik? Zeintzuk izan ziren sektorerik kaltetuenak?

Lehen 58/2025 Foru Agindua indarrean iraun zuen ordu gutxietan, arratsaldeko eta gaueko ordutegian, jarduera guztietan izan zuen eragina, sektore zehatz bakar baten berririk izan gabe. Departamentuan ez dugu jaso sektorearen eragin kritikoren jakinarazpenik.

Departamentuak kuantifikatu al du abuztuaren 5eko etete orokorraren inpaktu ekonomikoa? Zer estimazio darabilzue?

Ez. Ez dugu jaso sektorearen aldetik eragin ekonomikoen jakinarazpenik.

Departamentuaren ustez, protokolo arautu eta berariazko bat ezarri behar al da nekazaritzako jarduerak kudeatzeko INFONA planeko 2. mailan edo goragoko maila batean?

Bai, eta badago jada indarrean. Nafarroako Foru Komunitatean basoko suteak prebenitzeko, zaintzeko eta itzaltzeko urteko plana da esparru egokia, arrisku oso handiko eta muturrekoan, txinpartak eta deflagrazioak sortzeko moduko makinak eta bitartekoak erabiltzen dituzten jarduerak arautzeko.

Barne Departamentuak helarazi al du 222/2016 Foru Agindua aldatu beharra dagoela abuztuaren 5ean gertatu ziren erabaki deskoordinatuak errepiki ez daitezen?

Basoko suteak prebenitzeko, zaintzeko eta itzaltzeko urteko plana urtero berrikusten eta eguneratzen da, Barne Departamentuarekin eta sektoreko erakundeekin elkarlanean.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2025eko irailaren 23an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-25/PES-00302. Galdera, Aire Bidezko Konektibitatearen Mahaiari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak Aire Bidezko Konektibitatearen Mahaiari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko irailaren 5eko 98. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko urriaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak idatzizko erantzunerako 11-24/PES-00302 galdera egin du Aire Bidezko Konektibitatearen Nafarroako Mahaiari buruz. Hona hemen Nafarroako Gobernuaren Kultura, Kirol eta Turismoako kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

1.- Zer egin da arlo horretan, Aire Bidezko Konektibitatearen Nafarroako Mahaiak lehenbiziko bilera egin zuenetik?

– Datu kuantitatiboen eta kualitatiboen azterketa.

– Aurrekontu-esparrua doitzea, urte anitzeko partida berri bat sortzeko.

– Nafarroako Gobernuaren erabakia, zeinaren bidez Turismoa zuzendari nagusia baimentzen baita “Nafarroako turismo-sektorea eta airezko konektibitate nazional nahiz nazioartekoa sustatzeko zerbitzua” deritzon kontratua egiteko eta horren arabera den urte anitzeko gastu-konpromisoa hartzeko.

– Proposamen-txostena eta behar-txostena idaztea.

– Publizitate-kontraprestazioen prezio-egokitzeari buruzko komunikazio-txostena idaztea.

– Administrazio-baldintza partikularren plegua eta plegu teknikoa idaztea.

Urrats horiek guztiak egitearekin batera, bilera tekniko ugari egin dira zerbitzu juridikoekin, aurrekontukoekin, kontu-hartzaitzarekin, idazkaritza nagusi teknikoarekin eta komunikaziokoarekin.

2.- Zergatik ez da oraindik egin lehendakariak uda honetarako iragarri zuen gutxienez ere 4 milioi euroko lizitazio publikoa?

Gogoan erabili dugun ikusmira 2025eko irailekoa da, hilabete horretan burutu direnez aurreko puntuan azaldutako egintza guztiak. Orain, espediente kontu-hartzaitzarengana pasatzen da, ohiko prozesuari jarraituz, zeina Kontratu Publikoari buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legeak ezartzen baitu. Hortik aurrera, dokumentazioa ingelese-ra itzuliko da, ondoren NAO-n eta Europako lizitazio-atarian argitaratua izan dadin, zeina 2025eko urrirako aurreikusten baitugu, behar bezain garaiz izan dadin, alegia; izan ere, lizitazioak xedatzen du eragiketak 2026ko uda-sasoian beharko direla hasi; hau da, apirilaren 1ean.

3.- Noiz argitaratuko da Iruñeko aireportua nazioko bi destinorekin eta nazioarteko bi destinoekin lotzea hobetzeko lizitazioa?

Ahalik azkarrena, azaldu diren izapideak egin ondoren.

4.- Zer departamentuk argitaratuko du lizitazioa?

Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuak, Turismo Zuzendaritza Nagusiak.

5.-Zer aurrekontu-partidaren kontura eginen da lizitazioa?

Honako partida honen kargura:

A30002	A3200	2262	432103	Publizitateko eta aire-sustapeneko zerbitzuak	1.400.000
--------	-------	------	--------	---	-----------

6.- Zeintzuk izanen dira nazioko bi destinoak?

Bartzelona eta Málaga edo Sevilla.

7.- Egungo eskariari nahiz egon litekeenari buruzko zer datu-analisi ari da egiten nazioarteko destinoak erabakitzeke?

Analisi kualitatibo bat egin da enpresen eta industriaren arloko eragileekin, bi unibertsitateekin eta turismoaren sektorearekin, haien gaur egungo nahiz etorkizuneko beharrianak ezagutzeko.

Analisi kuantitatibo anonimizatu desberdinak egin dira bidaiariek Nafarroatik nahiz Nafarroara

azken urteotan airez egiten dituzten bide eta konezioei buruz.

8.- Analisi horiek oinarri, zeintzuk izanen dira nazioarteko bi destinoak?

Londres eta Frankfurt edo Munich.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatzen dena betez.

Iruñean, 2025eko urriaren 2an

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

11-25/PES-00303. Galdera, Eliza Katolikoak immatrikulatutako Nafarroaren ondareari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Carlos Guzmán Pérez jaunak Eliza Katolikoak immatrikulatutako Nafarroaren ondareari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko irailaren 5eko 98. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariaren erantzuna

Contigo-Zurekin talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Carlos Guzmán Pérez jaunak 11-25/PES-0030 galdera egin du, idatziz, ondare-balio handiko ondasun immatrikulatuei buruz. Bada, Nafarroako Gobernuak Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dizut egindako galderari erantzunez:

Aintzat hartuta Kordobako Meskitan izan berri den suteagatik duzun kezka, guk ere baduguna, eta atseginenez hartzen dugu hura hedagarria izatea, egindako galderaren aurrekari gisa, adierazten dizugu Nafarroa komunitate aktiboa dela eta parte hartzen duela Kultur Ondarean Arriskua eta Larrialdiak Kudeatzeko Plan Nazionalean; gainera, Larrialdietarako Aholku Batzordean partaidetza aktiboa du, INFONA Planagatik, Nafarroako Foru Komunitateari eragiten dion basoko suteen arriskuaren ohiz kanpoko egoera dela kausa, eta larrialdien aitzineko koordinazio eta jarduerarako Plana ere badugu. Babes zibilarekin koordinatu da sistema eta protokoloetan 1., 2. eta 3. arrisku-eremuak jasotzea.

Elizaren ondareari dagokionez, ondare-balio handiaren terminoa subjektiboa da. Hirigintza- eta ondare-plangintza lege zehaztuta dago babes-mailatan eta zenbait ordenamendu juridikotan. Eliza Katolikoak Nafarroan immatrikulatutako 2.952 ondasunen zerrendan, esteka honetan argitaratutakoan:

(<https://www.navarra.es/documents/48192/15129257/Bienes+inmatriculados.pdf/3313a5e7-bfee-6509-9796-e7479fddb251?t=1646209672750>)

tipologiari buruzko zutabeen ez da identifikatzen ez emandako hirigintza-babesa, ez ondare-balio subjektibo baten identifikazioa, ezta identifikatzea ahalbidetzen duen filtro zehatzik ere.

Ondasun inbentariatuaren erregistroarako sarbide publikorako, Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiak bi online tresna paratzen ditu herritarren esku:

– Ondasun inbentariatuaren erregistroa

<https://administracionelectronica.navarra.es/patrimoniocultural.internet/>

– Kultur eskubideen foru legea betez Nafarroan KIO deklaratuak ondasan higiezinaren mapa

<https://visitas.fcpatrimoniodenavarra.com/>

Bi baliabideak etengabe berrikusten eta eguneratzen dira, eta aukera ematen dute informazioa kontsultatzeko, hala nola, besteak beste, izena, kokapena, UTM koordenatuak, titulartasuna, KIO gisa deklaratuak, sarbide eta irekiera publikorako araubidea.

Elizak immatrikulatutako herri-ondasunei dagokienez, hau da, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak egun ikertzen ari direnei dagokienez, Kulturako Zuzendaritza Nagusiak aipatutako baliabideei lotzen zaie, “ondare-balio handia”ren irizpideak interpretazio subjektibo bati oraindik.

Kultu-ordutegitik kanpo sarrera kobratuta bisitatzen ahal diren ondasunei dagokienez, KIO deklaratuak ondasanen maparen bitartez eskura dauden datuek aukera ematen dute sarbide eta irekiera publikorako araubidea zein den. Alabaina, Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiak ez du eskumenik jarduera horiei aplikatzen zaien araubidea edo tributu-araua zehazteko.

Orobat, azken 25 urteotan kontserbatzeko eta zaharberritzeko esku-hartzeak egiteko finantzaketa publikoa jaso duten ondasunei buruz, Zuzendaritza Nagusiak ere ez du egiten ondare-mailari buruzko balorazio subjektiborik. Finantzatuak esku-hartzei buruzko informazioa aitzinetik esandako erregistroen bitartez kontsultatzen ahal da.

Hondarrik, elizak immatrikulatutako ondare-balio handia duten ondasunen kudeaketa publikoari buruz Nafarroako Gobernuak izandako balizko lan-ildoei dagokienez, Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiak ez du eskumenik Nafarroako Gobernuaren izenean solas egiteko. Ondarearen arloan indarrean dauden arauak eta legeak errespetatu, bete eta aplikatzera mugatzen da bere lana.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatzen dena betez.

Iruñean, 2025eko irailaren 22an

Kultura, Kirol eta Turismo kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo.

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Carlos Guzmán Pérez jaunak 11-25/PES-00303 idatzizko galdera egin zuen. Bada, Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dizut 2. galderari erantzunez, berau baino ez baitagokio Departamentu honen eskumeneko gai bati:

2. Nafarroako Gobernuak identifikatuta al dauka Eliza Katolikoak Nafarroan immatrikulatutako 300 herri-ondasunen artean (Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua ikertzen ari den horien artean) ondare-balio handiko ondasunik ote dagoen?

Une honetan elizak immatrikulatutako ondasunetako batzuk aztertzen ari dira, hain zuzen ondasunak Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren hitzarmenean ikertzeko atxikita dituzten toki-entitateetakoak. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua ez da egiten ari ondasunen ondare-balioaren kalkulua, horrek gure eskumenak gainditzen baititu.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2025eko irailaren 23an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-25/PES-00304. Galdera, Nafarroako Gobernuak Ebroren arroko 2022-2027 Plan Hidrologikoaren proiektuari aurkeztutako alegazioei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Bujanda Cirauqui jaunak Nafarroako Gobernuak Ebroren arroko 2022-2027 Plan Hidrologikoaren proiektuari aurkeztutako alegazioei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko irailaren 5eko 98. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko irailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak 11-25/PES-00304 galdera-sorta egin du, idatziz erantzun dakion, Nafarroako Gobernuak Ebroren arroko 2022-2027 Plan Hidrologikoaren proiektuari aurkeztutako alegazioen edukiri, oinarriari eta emaitzei buruz. Bada, Nafarroako Gobernuak Lurralde Kohesiorako kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut galderari erantzunez:

1. Nafarroako Gobernuak zer departamentu, unitate tekniko edo organo arduratu da Ebroren arroko 2022-2027 Plan Hidrologikoaren proiektuari aurkeztutako alegazioak idazteaz?

Nafarroako Lurralde Kohesiorako Departamentua eta Nafarroako Uretzalurrak.

Halaber, zer irizpide tekniko, juridiko edo politiko baliatu zen alegazio horiek prestatzean?

Nafarroako interesak defendatzea gure Komunitatean sortutako ur-baliabidearen aprobetxamendu onenaren ikuspegitik, Arroko Erakundearen plangintza hidrologiaren barruan.

2. Nafarroako Gobernuak zer jarrera aldeztu du Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren aitzinean Nafarroako Ubidearen eremu ureztagarria murrizteari eta haren emakida-zuzkidura jaisteari dagokionez?

Nafarroako Gobernuak Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren aitzinean duen jarrera hau da: ureztatzeko ur-zuzkidurak eman behar dira benetakoren premien arabera, uren banaketa onena eta bidezkoena egon dadin, betiere ureztalurren azalera

ahalmena galtzea saihestuta, Nafarroako ubideko eremu ureztagarrien digitalizazio eta efizientzia handia dela kausa. Orobat, Esatik zuzkidura handitzeko eskatu da, urtegia handitu ondotik.

Nafarroako Gobernuak kontraproposamen edo erreserba espliziturik planteatu al du?

Proposatzen da oraingo emakidari eustea, 5.864 m³/ha urteko batez besteko zuzkidurarekin, Nafarroako ubidearen sistemako ureztalurren azalera osoa 57.976 ha-koa izan dadin.

3. Alegazioetan zergatik ez da jaso Nafarroako Ubideari jada konektatuta dauden ureztalur tradizionalen dagokien bolumena (Lodosakoa, Cárcarekoa eta beste)?

Uretzatzaileen Komunitateak Nafarroako Uretzatzaileen Komunitate Orokorrean sartzeko eta zegozkien ibaietatik ura ponpatzen zuten ureztatzeko komunitate gisa baja emateko prozesuan daude; baja ez dute gaur gaurkoz jakinarazi oraindik.

Gobernuaren ustez, bolumen horrek emakida sendotuaren parte izan behar al du?

Nafarroako Gobernuaren helburua da Nafarroako ureztalurrak modernizatzea Uretzalurren Foru Planaren bitartez, oraingo emakidak galdu gabe.

4. Nafarroako Gobernuak zer jarrera izan du zehazki Esako urtegiaren handiagotzeari dagokionez eta Nafarroari urtegi horretan proportzioan legokiokeen ur-erreserbari dagokionez?

Nafarroako Gobernuak Esa handitzea babesten du, ura baliabide urria baita, eta zuzen ahiz ekitatiboki biltegitatu eta kudeatu beharrekoa. Urtegia handitu ondotik Esako urtegitik izanen diren bolumen berrien informazioa eskatu da.

Erreserba hori formalki eskatu al zaio Ebroko Konfederazio Hidrografikoari?

2028-2033 aldirako Ebroren Plan Hidrologikoaren laugarren zikloaren jendaurreko aurkezpenaren egindako alegazio bidez eskatu da.

5. Plan Hidrologikoari egindako alegazioetan zergatik ez da ez jaso ez defendatu Nafarroako Ubidearen Bigarren Fasearen Eremu Osagarriari buruzko plana garatzea, abenduaren 23ko 81/2020 Foru Dekretuan onetsi zenaren arabera?

Aleazioa Nafarroako ubide osorako egiten da, barne hartuta haren eremu ureztagarri guztiak.

Gobernuak aktibatuko al du tresna hori prozesuaren hurrengo faseetan?

81/2020 Foru Dekretuak eremu osagarriak jasotzen ditu Nafarroako Foru Komunitateko Ureztalurren Planaren jardueren zerrendan, eta egin beharreko jarduerak onura publiko eta interes orokorrekotzat jotzen ditu. Eta Nafarroako Ubideko eremu ureztagarriak garatzeko planetan jasota daude.

6. Nafarroako Gobernuak aurkeztutako zer alegazio errefusatu ditu jada Ebroko Konfederazio Hidrografikoak?

Ebroko Konfederazio Hidrografikoan aurkeztutako alegazioari ez diote oraindik erantzun.

Gobernuak zer neurri edo ekimen abiaraziko du errefus horren ondoren, bereziki foru erkidegoaren interesen defentsan?

Ez dute baztertu, ez baita oraindik erantzunik egon.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez. Horrez gain, datuak babesteko legedian ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. artikuluan jasotako xedeetarako soilik erabiltzen ahalko da emandako edukia, eta betebeharra egonen da Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoari men egiteko.

Iruñean, 2025eko irailaren 24an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

11-25/PES-00306. Galdera, Ribaforada II-La Dehesako ureztalurrak modernizatzeko obrak egiteari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Bujanda Cirauqui jaunak Ribaforada II-La Dehesako ureztalurrak modernizatzeko obrak egiteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko irailaren 5eko 98. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak 11-25/PES-00306 galdera egin du idatziz, Ribaforadako Ureztalurrak modernizatzeari buruz. Bada, Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dizut egindako galderari erantzunez:

Nafarroako Gobernuak zergatik erabaki zuen estatuko TRAGSA enpresari agintzea Ribaforada II-La Dehesako ureztalurrak modernizatzeko obrak

egitea, lizitazio publiko arrunt baten bidez egin ordez?

Nafarroako Foru Komunitateak TRAGSAko sozietate-kapitalaren % 1 du, eta gainerakoa Administrazio Publikoen jabetza da. Justizia Auzitegiak (Bigarren Sala) C-295/05 auzian emandako epaian, 2007ko apirilaren 19koan, xedatutakoarekin bat etorritik, TRAGSA Foru Komunitate honetako ente instrumentaltzat hartzen ahal da “zenbait agintari publikoren bitarteko propio instrumental eta zerbitzu tekniko gisa jarduten duen enpresa publikoa den aldetik, izan ere, batetik, agintari publiko horiek enpresaren gainean duten kontrola beren zerbitzuen gainean dutenaren antzekoa da, eta, bestetik, enpresak bere jardueraren funtsezkoa agintari horiekin beraiekin egiten du”.

Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen hogeita laugarren xedapen gehigarriak TRAGSAren eta haren filialen araubide juridikoa ezartzen du, eta Estatuko Administrazio Orokorren, autonomia-erkidegoen eta haien mendeko diren botere adjudikatzaileen bitarteko propio instrumentaltzat eta zerbitzu teknikotzat hartzen dira, eta behartuta daude erakunde horiek, modu esklusiboan, 4. eta 5. apartatuetan adierazi-

tako gaitan gomendatzen dizkieten lanak egitera, lehentasun berezi bat emanez presazkoak direnei edo deklaritzen diren larrialdiko egoeren ondorioz agintzen direnei.

Era berean, 1072/2010 Errege Dekretuak, abuztuaren 20koak, Empresa de Transformación Agraria SAren eta haren filialen araubide juridikoa garatzekoak, xedatzen du autonomia-erkidegoetako departamentuek bere eskumenak eta eginkizunak gauzatzeko behar dituzten lanak eta jarduerak agintzen ahalko dizkietela TRAGSAri eta haren filialei.

TRAGSAk Administrazio Publikoekin dituzten harremanak, arauaren arabera, instrumentalak dira, eta ez kontratuzkoak; barneko eta mendeko izaera dute, horrenbestez, ondorio guztietarako.

Aitzineko guztiagatik, Nekazaritzako Azpiegituren Zerbitzuak TRAGSAri instrumentu egokiena iritzi zion Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak egin ditzan lurzatiak biltzeko eta ureztalurrak modernizatzeko jarduketak gauzatzeko 1/2002 Foru Legeak, Nekazaritza Azpiegituri buruzkoak emandako eskudantziak.

Gobernuak zer balorazio egiten du Nafarroako enpresen gardentasuna, konkurrentzia eta gastua aurrezteko irizpideak direla-eta erabaki horrek izan ditzakeen inplikazioei dagokienez?

Ente instrumental guztiek, administrazioaren bitarteko propio gisa, eskakizun horiek betetzen

dituzte halakotzat har daitezen, kontrakoa legez kanpoko izanen bailitzateke. EBk berak aitortzen du TRAGSAren tarifak merkatuarekin bat datoze-la. TRAGSAk aginduaren barruko lanetarako egindako lizitazioak anitzetan Nafarroako enpresei adjudikatzen zaizkie, obra honen kasuan gertatu bezala.

Zer beherapen ekarri du tarifekiko kontratazio horrek egin behar zen jatorrizko proiektuarekin alderatuta?

Ezinezkoa da jakitea, baina 1/2002 FLa eta aitzineko 18/1994 FLa aldarrikatu zirenetik izandako esperientziak adierazten du ohikoa dela kontratista pribatuekin egindako lizitazioek duten azken kostua handiagoa izatea TRAGSAk egindako obrena baino.

Zeintzuk dira darabiltzazuen epeak eta atzerapenak?

Aginduaren hasierako aurreikuspenari dago-kionez (alegia, 2025eko azaroaren 30ean bukatzea), agindua luzatu egin da 2026ko martxoaren 31ra arte.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2025eko irailaren 23an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko konseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-25/PES-00307. Galdera, Martzillako behaketa- eta harrera-zentroan joan den ekaineko gertakarien ondoren izandako lan-iraizpenei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak Martzillako behaketa- eta harrera-zentroan joan den ekaineko gertakarien ondoren izandako lan-iraizpenei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko irailaren 5eko 98. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko irailaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak 11-25/PES-00307 galdera hau egin du, idatziz erantzun dakion:

Gobernua ziur al dago Martzillako Behaketa- eta Harrera-Zentroan kaleratzeak egon zirela ekainean izandako gertakarien ondorioz?

Hala baldin bada, kaleratuek zertan ziharduten (kudeatzailea, hezitzaileak, psikologoak, garbitzaileak, eta abar) eta zeintzuk izan dira kalera-tzeen arrazoiak?

Hona Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak ematen dion informazioa:

Zerbitzua kudeatzen duen GINSO entitateak Departamentu honi helarazitako informazioaren arabera, Martzillan ekainean gertatutako gorabeheren ondotik hango profesional bakarra kaleratu dute. Beste profesional batzuen baja gertatu da, baina era anitzetako arrazoiengatik (erretiroa, kontratua bukatzea, borondatezko baja, probaldia ez gainditzea).

Kaleratutako profesionala neska eta mutilei zuzenean lagun egiteko eginkizunak betetzen zituen hezitzaile bat zen, eta diziplinazko faltak errepikatzeko ekarri du kaleratzea.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko uztailaren 25ean

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-25/PES-00308. Galdera, Martzillako behaketa- eta harrera-zentroan dauden bidaidarik gabeko atzerritar adingabeei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak Martzillako behaketa- eta harrera-zentroan dauden bidaidarik gabeko atzerritar adingabeei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko irailaren 5eko 98. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak 11-25/PES-00308 galdera hau egin du, idatziz erantzun dakion.

Bada, Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kon-

seilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut egindako galderari erantzunez:

2025eko ekainaren 13an, Martzillako behaketa- eta harrera-zentroan bidaidarik gabeko 94 mutil, neska eta nerabe atzerritar zeuden.

2025eko abuztuaren 29an, galdera egiteko egunean, zentroan bidaidarik gabeko 42 adingabe atzerritar zeuden.

Honako lekualdaketa hauek egin dira:

– Ekainaren 13an 23 adingabe Ilundaingo bi gunetara eraman zituzten (aldi baterako gaitu ziren).

– Ekainaren 19an Iruñeko behaketa- eta harrera-zentroa ireki zen, eta 11 adingabe eraman zituzten Martzillako behaketa- eta harrera-zentrotik.

– Geroago, adingabe gehiago eraman izan dituzte Iruñeko eta eskualdeko behaketa- eta harrera-zentroetara.

Helmuga	Adingabe kopurua
Etxegaray BHZ	
Uztailaren 16a	1
Abuztuaren 29a	1
Ilundaingo BHZ	
Abuztuaren 18a	1
Iruñeko BHZ	
Uztailaren 22a	1
Abuztuaren 13a	1
Abuztuaren 19a	1
Guztira orokorra	6

Hiru hilabeteotan, guztira, 40 adingabe eraman dituzte beste behaketa- eta harrera-zentro batzuetara.

Aldi horretan, sistemako beste baliabide batzuetara ere eraman dituzte (oinarrizko egoitza-harrera, egoitza-harrera espezializatu, autonomia-etxebitzak eta autonomia aitzineko etxebitzak).

Helmuga	Adingabe kopurua
OEH	
Uztailaren 3a	
Zizur Nagusia	1
Uztailaren 30a	
Iruña	1
Uztailaren 31	
Mutiloa	1
Iruña	2
Abuztuaren 1a	
Tutera	1
Abuztuaren 5a	
Orkoi	1
Zizur Nagusia	1
Abuztuaren 8a	
Ilundain	1
Abuztuaren 22a	
Tutera	1
EHE	
Abuztuaren 21a	
Elkano	1
Iruña	1
Autonomia	
Uztailaren 23a	
Iruña	2
Uztailaren 29a	
Iruña	1
Uztailaren 30a	
Barañain	1
Iruña	3
Uztailaren 31	
Sarriguren	1
Abuztuaren 1a	
Tutera	2
Abuztuaren 13a	
Iruña	1
Abuztuaren 18a	
Iruña	1
Autonomia aitzinekoa	
Uztailaren 28a	
Oloki	1
Iruña	2

Bi egunen artean, Martzillako BHZtik guztira 27 adingabe eraman dituzte beste behaketa- eta harrera-zentro batzuetara.

Lekualdaketa bakoitzaren irizpideak banakatuak izan dira adingabe bakoitzarentzat, kontuan hartuta haren prozesua, Martzillan emandako denbora, adina eta zer laguntza behar duen.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko irailaren 23an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-25/PES-00309. Galdera, Artikako behaketa- eta harrera-zentroei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak Artikako behaketa- eta harrera-zentroei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko irailaren 5eko 98. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko irailaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariaren erantzuna

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentariari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak, Nafarroako Gorteetako kide gisa eta Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, 11-25/PES-00309 informazio-eskaera egin zion Nafarroako Gobernuari. Bada, Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut egindako galderari erantzunez:

Zer jazo da abuztuan suhiltzaileek eta/edo segurtasun-indar eta -kidegoek esku hartu behar izateko? Zer kalte sortu dituzte?

EGUNA	MOTA	KOKAPENA	ZUZKIDURA	KALTEAK
08/12	Hiri-sutea	Artikako BHZ	B0011, B0012, B-0122, B-0171	Sofa erreta eta horma ketuak. Zentroa zati batez hustea
08/18	Sutea landaretzan	Artikako BHZ	B-0001, B-0131	Heskaia erreta
08/23	Sutea landaretzan	Artikako BHZ	B-0001, B-0131	Heskaia erreta

Egon al da salaketarik? Zer-nolakoak?

1. taula. Salaketa penalak.

Gertakaria Delitu mota	Data
4589581 Sexu-erasoaren delitua	2025/08/06

2. taula. Patruila operatiboek erregistratutako intzidenteak, 2025eko abuztua

Gertakaria	Katalogazioa	Azalpena (laburpena)	Data
2376510	ADINGABEEN LEKUALDAKETA	Zentrora sexu-erasoaren biktima izandako adingabearen lekualdaketa	2025/08/07
2378671	HERRITARREN ARRETA	Intrusioa lorategian; gizona Opel urdinean; baliteke jazarpena izatea.	2025/08/11
2379672	SUTEAK	Sutea Artikako BHZn; ordezko bizenokia eman zaie adingabeei.	2025/08/13
2379759	LAGUNTZA UDALZAINGOARI	Sutea Artikako BHZren barruan; suhiltzaileek esku hartu dute.	2025/08/13
2379788	LAGUNTZA UDALZAINGOARI	Aginte eta Koordinazio Zentroaren abisua: susmagarria Kasedan zentroak kalteak egin ondotik.	2025/08/13
2380391	HERRITARREN ARRETA	Adingabe aztoratu bat Artikako BHZn; lasaitu egiten da.	2025/08/14
2383423	SUTEAK	Sutea heskaian; bizilagunen eta adingabeen arteko gatazka.	2025/08/18
2383987	PATRUILAK	Artikako zentroak patruila eskatu du.	2025/08/19
2386039	SUTEAK	Sutea Artikako 1 eta 2ko lorategietan; aktak hezitzaileei.	2025/08/23
2386041	JARDUKETA ADINGABEEKIN	Sutea Artikako zentroan; txostena.	2025/08/23
2386046	LAGUNTZA UDALZAINGOARI	Nahita egindako sutea bi BHZren artean; hustea; miaketak.	2025/08/23
2387927	ZAINTZAK	Zaintza Berriozar 16an; adingabeek hesiaren gainean salto egin dute.	2025/08/27
Gertakariak guztira			12

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 213.6 artikuluan xedaturikoa betez.

Iruñean, 2025eko irailaren 23an

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilaria: Amparo López Antelo

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariaren erantzuna

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak 11-25/PES-00309 galdera hau egin du, idatziz erantzun dakion. Hona Nafarroako Gobernu-ko Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak ematen dion informazioa:

Artikan ez dago behaketa- eta harrera-zentrorik. Dauden bi baliabideak oinarritzko egoitza-harrerako zerbitzuak dira.

Haietako bat 2016an baimendu zen, eta bestea, 2018an.

Haietako bakoitzak 9 plaza ditu, eta gaur egun, 7 nerabe daude bietan (bete gabeko tokiak adjudikatzeko fasean daude).

Baliabide bakoitzeko 7 nerabe haietatik, 5 heldu dira Martzillako behaketa- eta harrera-zentrotik, baina zerbitzuetan sartu ziren Martzillan aurtengo ekainean izandako intzidentek baino hilabete anitz lehenago.

Abuztuan hiru sute gertatu dira baliabideetako baten inguruan. Izandako kalteek eragina izan dute txaletetako baten materialean eta lorategiaren beraren inguruko heskaietan. Ez da kalte pertsonalik gertatu.

Salaketaren bat egon den eta zer-nolakoa izan den, adierazi behar dut informazioa eman dela

jada Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Departamentuak emandako erantzunean.

Ilundain-Haritz Berri Fundazioak kudeatzen ditu bi zentroak. Profesionalen lantaldean honako hauek daude: hezkuntza arloko langileak (hezitzaileak eta laguntzeko hezitzaileak) eta gizartelanekeo nahiz psikologiako profesionalak osatutako talde teknikoa (familiako esku-hartzea eta esku-hartze psikoterapeutikoa), familian esku hartzeko teknikaria, kulturarteko bitartekotza eta koordinazio-figura.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko irailaren 25ean

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-25/PES-00310. Galdera, Europako funtsei buruzkoa (Next Generation, LIFE, INTERREG, PEPAC edo Europar Batasunaren bestelako programa batzuk)

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Bujanda Cirauqui jaunak Europako funtsei buruz (Next Generation, LIFE, INTERREG, PEPAC edo Europar Batasunaren bestelako programa batzuk) egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko irailaren 5eko 98. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak 11-25/PES-00310 idatzizko galdera egin zuen, Europako funtsei buruzkoa. Bada, Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut:

2025eko abuztuaren 25ean, Nafarroako Gorteko kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioko kide den Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkeztu zion, idatziz, Nafarroako Gobernuari:

1. Europako funtsen (Next Generation, LIFE, INTERREG, PEPAC edo Europar Batasunaren bestelako programen) zer zenbateko zehatz jaso du Nafarroako Gobernuak 2021etik hona, baso-kudeaketa jasangarriaren, ekosistemak leheneratzearen, baso-bioekonomiaren eta suteen aurkako borroka-aren arloko jarduketak egiteko?

2. Funtz horietako zer parte baliatu da egiaz eta ordaindu da gaur arte? Zehaztu aurrekontuan jasotakoaren zer ehuneko bete den, eta ez soilik aitoritutako betebeharrak.

3. Nafarroako Gobernuak baieztatu al dezake ea, Trantsizio Ekologikorako Ministerioarekin gertatzen den moduan, konprometitutako Europako funtsen % 90 baino gehiago dagoen bete gabe sute-kanpaina abiatu denean, noiz eta beharrezkoagoak direnean?

4. Zerk justifikatzen du Europako funtsak betetzean izandako atzerapen edo eraginkortasunik ez hori? Izan ere, suteak ekiditeko, baso-kudeaketa indartzeko eta landa-ingurunean populazioa finkatzeko baliatu beharko lirateke.

5. Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik Gobernu zentralari erreklamatzeko edo exijitzeko betetze-maila erreala handiagoa izan dadin, ala etsipenez onartuko du

dirua ministerioaren burokrasian blokeatuta geratzea Nafarroak baso-suteak eta landa-despopulazioa pairatzen dituen bitartean?

6. Nafarroako Gobernuak bidal al dezake jasotako Europako funtsetako baso-partiden xehakapena, Nafarroan 2021etik jasotako zenbatekoak, konprometitutakoak, aitortuak eta egiaz ordaindutakoak berezita?

Basoen eta Ehiza Kudeaketaren Zerbitzuak, Ingurumen Zuzendaritza Nagusira atxikitako unitateak, eta baso-kudeaketa jasangarriaren, ekosistemak leheneratzearen, baso-bioekonomiaren eta suteen aurkako borrokaren arloko jarduketekin lotuta, Europako funtsak jaso ditu Landa Garapeneko Programaren barruan —LGENF funtsak— (LGENF LGP 2014-2020 luzatua) eta (LGENF NPBPE 2023-2027) eta EBko Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren barruan (SEM funtsak).

LGENF funtsen esparruan, 2014-2020 aldirako Nafarroako Landa Garapenerako Programaren exekuzio-ehuneko osoa, 2025eko irailaren 8an, % 89,12koa da. Programaren neurrietako bakoitzari lotutako datua ondotiko taulan adierazten da.

Ez ditugu neurrien araberako urteko banakapen-datuak.

LANDA GARAPENEO PROGRAMA 2014-2020 neurria	Kodetzea	exekuzioa (%) 2025eko irailaren 8an
2014-2020 aldirako landa-garapeneko programaren exekuzioa (LGENF funtsa) E1:Q1	2004/03/04	89,12
Baso-azpiegituretako inbertsioak	2004/03/04	
Baso-sartzea	2001/01/08	100,00
Baso-ekosistemen ingurumen-balioa leheneratzeko inbertsioak	2001/05/08	
Baso-ekosistemen ingurumen-balioa leheneratzeko inbertsioak	2001/05/08	92,87
Baso ekosistemen ingurumen-balioa leheneratzeko inbertsioak	2001/05/08	
Lehen mailako eraldaketa eta merkaturatzeko inbertsioak	2001/06/08	122,02
Kudeaketa-planak egitea	2001/08/16	
Kudeaketa-planak egitea	2001/08/16	96,06
Suteek eragindako basoko kalteak konpontzea	2001/04/08	92,57
Suteek eragindako basoko kalteak prebenitzea	2001/03/08	101,10
Landa-ondareko inbertsioak. Natura-ondarea kontserbatzeko hitzarmenak	2001/08/07	91,21

Aitzinetik esandako neurriei lotutako gastuak kargatzen dituzten urteroko bakoitzaren aurrekontuko partidetara jo dugu urterokoaren araberako xehetasun handiagoa emateko.

2025eko ordainketak kontabilitate-ekitaldiaren bukaeran zenbatuko dira.

Datos de la ejecución de las partidas presupuestarias del Presupuesto de Gastos Periodo 2021-2024															
	2021				2022				2023				2024		
	Presupuesto	Pagado	% realización	Presupuesto	Pagado	% realización	Presupuesto	Pagado	% realización	Presupuesto	Pagado	% realización	Presupuesto	Pagado	% realización
740002 74200 7709 456702 PDR FEADER 2014-2020. Subvenciones de infraestructuras forestales promovidas por entidades locales	22.466,81	14.793,46	66%	6.754,46	1.201,18	18%	40.000,00	0,00	0%	40.000,00	5.687,58	14%			
740002 74200 7609 456703 PDR FEADER 2014-2020. Subvenciones de infraestructuras forestales promovidas por agentes privados	584.200,00	127.716,22	22%	671.789,22	531.920,78	79%	680.000,00	449.322,92	66%	680.000,00	574.738,86	85%			
740002 74200 7700 456700 PDR FEADER 2014-2020. Forestación de terrenos baldíos	170.000,00	142.630,33	84%	147.851,04	133.149,17	90%	170.000,00	119.601,97	70%	170.000,00	83.157,23	49%			
740002 74200 7709 456700 PDR FEADER 2014-2020. Subvenciones a trabajos forestales de silvicultura promovidas por entidades locales	447.533,19	326.203,96	73%	530.010,26	432.576,17	82%	600.000,00	436.040,78	73%	600.000,00	496.353,00	83%			
740002 74200 7609 456702 PDR FEADER 2014-2020. Subvenciones de trabajos forestales de silvicultura promovidos por agentes privados	1.660.000,00	1.316.038,00	79%	1.660.000,00	1.386.799,10	84%	1.750.000,00	1.414.058,81	81%	1.750.000,00	1.556.650,32	89%			
740002 74200 6019 456303 PDR FEADER 2014-2020. Inversiones en fincas PFN y Parque Natural Urbasa Andía	130.000,00	116.769,00	90%	130.000,00	124.930,04	96%	130.000,00	116.880,69	90%	130.000,00	125.441,47	96%			
740002 74200 7709 456703 PDR FEADER 2014-2020. Subvenciones a agentes privados. Industria forestal	375.725,00	154.643,75	41%	422.429,11	421.741,61	100%	480.000,00	463.402,25	97%	480.000,00	138.650,00	29%			
elaboración planes de gestión forestal promovidos por agentes privados	20.000,00	0,00	0%	20.000,00	0,00	0%	20.000,00	0,00	0%	20.000,00	0,00	0%			
740002 74200 6092 456703 PDR FEADER 14-20. Ordenación de montes bosques destruidos	255.000,00	227.224,37	89%	135.974,12	67.404,00	50%	223.500,00	184.382,87	82%	228.139,06	218.782,64	96%			
740002 74200 6019 456706 PDR FEADER 2014-2020. Restauración de bosques destruidos	180.000,00	176.418,00	98%	132.591,25	131.861,52	99%	180.000,00	131.750,44	73%	180.000,00	174.066,09	97%			
740002 74200 6019 456500 PDR FEADER 2014-2020. Prevención de incendios	152.000,00	70.630,01	46%	103.103,00	92.590,47	90%	152.000,00	151.999,82	100%	152.000,00	147.316,25	97%			
740002 74200 4609 456308 PDR FEADER 2014-2020. Subvenciones Pastos Montanos (entidades locales)	222.273,00	76.993,28	35%	111010,58	102494,38	92%	158494,24	134086,64	85%	222.273,00	162.511,29	73%			

EBko Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoari lotutako funtsei dagokienez —galderan esandako ekintzei lotuta—, onetsi egin ziren 2021eko abenduaren 15ean egindako Ingurumen Sektorre Konferentziaren Bilkuran, zeinean honako erabaki hau onetsi baitzen: Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren 4. osagaiaren (Ekosistemak eta haien biodibertsitatea kontserbatzea eta leheneratzea) kredituen bigarren banaketa, uztailaren 9an onetsitako irizpideen arabera, onesteko erabakia.

Nafarroako Foru Komunitateari dagozkion era anitzetako jarduketaren artean daude galderaren xede diren gaiekin lotutakotzat jotako honako hauek:

– Nafarroako baso ondarearen finketan baso-masak hobetzea. 600.000 €

– Izurriek, gaixotasunek eta suteek ukitutako eremuak leheneratzea. 1.200.000 €

– Prebentziozko lurralde-kudeaketa sustatzea, batez ere Nafarroako erdialdean abeltzaintza estentsiboa sustatuz suteak prebenitzea. 450.000 €

– Baso-kudeaketa, abeltzaintza estentsiboa eta sute-prebentzioa Iruñerrian. 600.000 € 2022an 774.580 eurora handitua

– Informatikako materiala eta suteetarako lurreko ibilgailuak erostea. 1.200.000 €

Jarduketan bakoitzaren urterokoen arabera exekuzio-mailaren laburpen-taula erantsi da. Gaur egun exekuzio-maila % 84,49koa da.

2025eko ordainketak kontabilitate-ekitaldiaren bukaeran zenbatuko dira.

Jarduketa	2022	2023	2024	Guztira
Nafarroako baso-ondarearen finketan masak hobetzea	-	961,95	46.222	47.183,95 €
Ukitutako eremuak leheneratzea	-	400.002,81	628.727,31	1.028.730,12 €
Erdialdeko kudeaketa sustatzea	49.296,63	406.990,35	0	456.286,98 €
Iruñerriko kudeaketa sustatzea	152.314,77	759.580,27	0	911.895,04 €
Ibilgailuak erostea (BZN)	-	1.125.227	0	1.125.227,00 €
Guztira				3.569.323,09,00 €

Azkenik, adieraztea, horrez gain eta 2025eko uztaileko Ingurumen Sektorre Konferentziaren Erabakiaren bidez onetsi egin zirela Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren 4. osagaiko (Ekosistemak eta haien biodibertsitatea kontserbatzea eta leheneratzea) banatzeko kreditu objektiboak eta kredituen lurralde-banaketa, gainbehera-fase aurreratuetan dauden eta desertifikazio-arrisku handia duten baso-masak leheneratzeko jarduketak finantzatzeko, eta Nafarroari 348.500,25 € dagozkio, zeinak, 2026ko ekaina arte, xede horretara bideratu beharko baitira.

Bestalde, eta baso-bioekonomiako jarduketaren eremu zehatzean, 1.192.194 € jaso ziren, eta zenbateko hori 2025eko baso-bioekonomia sustatzeko laguntzen deialdira zuzendu da, zeina eman baitzen 2025eko ekainaren 19ko 52/2025 Ebazpenaren bidez, Ingurumeneko Zuzendari Nagusiak emana, jasotako funts guztiengatik.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2025eko irailaren 23an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-25/PES-00311. Galdera, Suhiltzaile Zerbitzuan baso-zereginetarako talde bat sortzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak Suhiltzaile Zerbitzuan baso-zereginetarako talde bat sortzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko irailaren 5eko 98. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko irailaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, 11-25/PES-00311 galdera egin du, idatziz erantzun dakion. Bada, Nafarroako Gobernuko Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilaria naizen aldetik, jakinarazten dut galderak Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuari helarazi ondotik honako hau adierazi duela:

1.- Noiz sortu zen harako lantaldea, zeinak Suhiltzaile Zerbitzuaren egituraren barruko Basogintzako Talde Tekniko baten beharra, egokitasuna, funtzionaltasuna eta dimentsionamendua aztertu baitzituen?

Diziplina anitzeko lantaldea otsailaren 22ko 36/2023 Ebazpenaren bidez eratu zen, zeina Barneko Zuzendari Nagusiak eman baitzuen, Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuan Basogintzako Talde Tekniko baten beharra, egokitasuna, funtzionaltasuna eta dimentsionamendua aztertzeko.

2.- Nortzuk izan ziren lantaldeko kideak eta noiz amaitu ziren haien lanak?

Ebazpenean lantaldeko kideak izendatu ziren: José Vicente Martínez Martínez jauna, Elías Arraiza Martiarena jauna, Alejandro Urdanoz Larequi jauna, Carlos Urrutia Ibáñez jauna, Pablo Arrastia Martínez jauna (CCOO), Andrés Cormenzana López jauna (ELA) eta Iñaki Lizarbe Aristu jauna (LAB).

3.- Kontseilariak ezagutzen al du “Nafarroako Suhiltzaileen Baso Taldea arautzen duen dokumentua” deiturikoaren edukia? Zer iritzi duzu Baso Taldea sortzeko proposamenari buruz?

Jakinaraztea gaur-gaurkoz Baso Taldea arautzen duen dokumentua ez dagoela onetsita, hura egiteko lanean segitzen dutela, eta balitekeela aldaketak egotea.

4.- Noiz eman zitzaizun dokumentu hori?

Azaldu bezala, Baso Taldea arautzen duen dokumentua ez dago onetsita, hura egiteko lanean segitzen dute, eta baliteke aldaketak egotea.

5.- Zer egin du Departamentuak Suhiltzaileen Baso Taldea eraginkortasunez ezartzeko, behin dokumentu horren edukia ezagututa?

Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzua lanean ari da aipatutako taldea sortzeko eta jardueran jartzeko behar diren neurri guztiak planifikatzeko eta exekutatzeko.

6.- Kontseilariak zergatik ez du oraindik onetsi taldearen eraketarako foru agindua? Izan ere, azaroaren 15eko 254/2023 Foru Dekretuaren arabera, hori egin beharra zuen.

Adierazi bezala, une honetan lanean segitzen ari dira aipatutako taldea sortzeko eta jardueran jartzeko behar diren ekintza guztiak planifikatzeko eta exekutatzeko.

7.- Ba al dago inolako arrazoi operatiborik taldea ez sortzeko?

Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzua diziplina anitzekoa da, eta zerbitzu-karta arras handia du, eta horri esker, suhiltzaile eta agintari guztiek larrialdi oro konpontzeko gaitasun frogatua dute. Baso-suteen portaera aldatu egin da klima-aldaketaren eta landa-ingurune despopulazioaren ondorioz; hala bada, azkarragoak, handiagoak eta biziagoak dira, eta Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzua agertoki berrira egokitu behar da.

Gauzak horrela, eta maila operatiboari dagokionez, Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuaren iritziz basoko errefortzu-taldearen aukerak espezializazioa dakar baso-suteak itzaltzeko esparruan, eta tresna hori baliteke lagungarria izatea sutearen eboluzioari aitzina hartzeko eta hura aztertzeko erantzun proaktiboa emateko, bai eta prebentzio-lana indartzeko ere.

8.- Foru agindu hori noizko onesteko asmoa du kontseilariak? Legegintzaldi honetan zehar izanen al da?

Gaur egun, Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuak aurreikusten du basoko errefortzu-taldea legealdi honetan sortzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 25ean

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilaria: María Amparo López Antelo

11-25/PES-00312. Galdera, lehentasunez erosi eta atzera eskuratzeko eskubidea aplikatzearen emaitzei buruzkoa eta NASUVINSAko Alokairu Poltsaren bilakaerari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, lehentasunez erosi eta atzera eskuratzeko eskubidea aplikatzearen emaitzei buruzkoa eta NASUVINSAko Alokairu Poltsaren bilakaerari buruzkoa, 2025eko irailaren 5eko 98. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko irailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendia jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du 11-25/PES-000312 eskariari buruz. Hona hemen Nafarroako Gobernuaren Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak horren harira ematen dion informazioa:

Lehentasunez erosi eta atzera eskuratzeko eskubidea baliatuz Nafarroako Gobernuak 2023tik 2025era bitarteko hiru urteetan erositako etxebizitzak:

URTEA	ETXEBIZITZA KOP.
2023	8
2024	13
2025	34

NASUVINSAk kudeatutako Alokairu Poltsaren programari dagokionez, gaur egun 1.102 etxebizitza daude sartuta, eta honako hau izan da urtez urteko hazkundea:

URTEA	ETXEBIZITZA	HAZKUNDEA
2025eko iraila	1.102	105
2024ko iraila	997	61
2023ko iraila	936	

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko irailaren 19an

Hirugarren lehendakariorde eta Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria: Begoña Alfaro García

11-25/PES-00313. Galdera, Pirinioetako Planari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Bujanda Cirauqui jaunak Pirinioetako Planari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko irailaren 5eko 98. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko urriaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Lurralde Kohesiorako kontseilariaren erantzuna

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak 11-25/PES- 00313 galdera-sorta egin du, idatziz erantzun dakion, Pirinioetako Planari buruzkoa. Bada, Nafarroako Gobernuak Lurralde Kohesiorako kontseilaria naitzen aldetik, honako hau jakinarazten dut:

SARRERA:

Gero emanen diren datuak ulertuko badira, jakin behar da Pirinioetako Plana nondik sortzen den.

2016an, Parlamentuak Pirinioen despopulazatearen problematikari heltzeko ponentzia bat abiarazi zuen. 2018ko azaroaren 8an, Parlamentuaren Osoko Bilkurak aho batez onetsi zuen ponentziaren konklusio eta gomendioen txostena. 2019ko urriaren 7an, Ekialdeko Pirinioei buruzko Ponentziaren jarraipenerako Batzorde Berezia eratu zen.

Urteotan eta aldi berean, plana bulkatzeko Pirinioetako Mahaia sortu zen.

Nafarroako Parlamentuak, ekimenari erantzuna emateko konpromiso eta borondatearekin, berriazko ponentzia bulkatu zuen Pirinioetatik helarazitako gaiei heltzeko.

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak 2018an eta 2019an egindako bi aginduren bitartez, Lursareak lan egin zuen Pirinioetako Mahaia dinamizatzen. 2018an, mahaiaren bitartez Pirinioetako biztanleen eskaera ugariak bildu ziren. Eta 2019an, lau batzorde sortu ziren: Turismo jasangarria, hurbileko merkataritza, Industriak, Ekintzailatza Berdea eta Lurralde Garapen Jasangarria, Abeltzaintza, nekazaritza eta basogintza, eta Etxebizitza, garraioa eta azpiegiturak eta zerbitzuak.

2019an, Proiektu Estrategikoen Zuzendaritza Nagusiak, urriaren 30eko 262/2019 Foru Dekretuak jasotako eskumenekin, bere gain hartu zuen Ponentzia Parlamentarioak gomendatutako unitate organikoaren eginkizuna, bai eta Pirinioetako Planaren aurreikuspenak dinamizatzen, exekutatzen eta haien jarraipena egiteko erantzukizuna ere.

Horiek horrela, 2020an lehen jarduketak definitzen eta diseinatzen hasi ziren, lurraldeko lantaldea eratzeko beharra plazaratu zen, ekintzak abiaraz zitzaiz. Cederna-Garalurreko eta Lursareako langileek osatuko dute lantaldea.

Halaber, Proiektu Estrategikoen Zuzendaritza Nagusiak toki-entitateentzako dirulaguntza-deialdia egin du, planarekin lotutako proiektuak abian jar ditzaten.

2021ean, 2022an eta 2023. urtearen zati batean, Zuzendaritza Nagusi hau arduratu da Pirinioetako Plana bulkatzeaz. Lurralde Kohesiorako Departamentuaren Egiturari buruzko azaroaren 15eko 249/2023 Foru Dekretuaren ondotik sortu zen

Erronka Demografikorako eta Lurralde Egituraketa-rako Zerbitzua, Pirinioetako Plana bulkatzen segitzeko organo eskuduna.

Aitzinetik ondorioztatzen da, nahiz eta galdera parlamentarioak 2019. urteko datuak eskatzen dituen, 2020. urtera arte ez dira identifikatzen Pirinioetako Planarekin lotutako aurrekontuko partidak. Eta 2020ko ekainean onetsi zen.

GALDERAK:

1. Zein izan da (urteen, aurrekontu-kapituluen eta departamentuen arabera xehakaturik) Pirinioetako Planari 2019tik 2024ra bitarte esleitutako funts publikoen zenbateko osoa?

Excel dokumentua erantsi da.

2. Zer entitate publikok, partzuergok, elkartek edo enpresa publikok kudeatu ditu, zuzenean nahiz zeharka, Pirinioetako Planeko funtsak 2019az geroztik? Zer eginkizun, aurrekontu edo kontraturekin?

2019-2023ko legegintzaldian, Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuaren (Proiektu Estrategikoen Zuzendaritza Nagusia) ardurapean egon zen Pirinioen Plan Estrategikoaren exekuzio eta jarraipena, lankide izan zuela lurralde-lantalde bat, honako bi entitate hauetako langile teknikoek osatua:

- Nasuvinsa sozietate publikoa: Lursarea-Nafarroako Lurraldearen eta Jasangarritasunaren Agentziaren bitartez. Nasuvinsaren unitate tekniko bat da, martxoaren 28ko 12/2018 Foru Dekretuaren bidez eratua Nafarroako lurralde osoan garapen jasangarriari bultzada emateko eta lurraldea dinamizatu eta sustatzeko, besteak beste.

- Cederna-Garalur partzuergoa: toki-ekintzako talde gisa dihardu eskualdearen garapen sozioekonomikoari bultzada ematen, xede harturik populazioari eutsi eta gehiago erakartzea, toki- eta eskualde-ekintzak aldeztuz.

Oraingo legegintzaldian, departamentu ardura-duna Lurralde Kohesiorako Departamentua da (Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusia), halako moduz non joan den legegintzaldian Proiektu Estrategikoen Zuzendaritza Nagusiak betetzen zituen funtzioak orain Lurralde Kohesiorako Departamentuaren eskumen-esparru material eta funtzionalari baitagozkio eta Erronka Demografikorako eta Lurralde Egituraketa-rako Zerbitzuak betetzen baititu.

Horrela, azaroaren 15eko 249/2023 Foru Dekretuak, zeinaren bidez ezartzen baita Lurralde Kohesiorako Departamentuaren egitura organikoa, Erronka Demografikorako eta Lurralde Egituraketa-rako Zerbitzuaren alor materialean sartzen du (28. artikulua) "Pirinioetako Plana sustatu eta koordinatzea, Lursarea-Nafarroako Lurraldearen eta Jasangarritasunaren Agentziaren eta bertako eragileen laguntzarekin": eta, halaber, "Pirinioetako Planaren eredia eta kogobernantza sistema ezartzea Despopulazioak ukitutako beste lurralde esparru batzuetan".

Nasuvinsak eta Cederna-Garalurrek helburu edo eginkizuntzat daukate Pirinioen Plana dinamizatzea, betetzea eta horren segimendua egitea, bertan kokaturiko "lurralde-ekipo" delakoan eta gobernantza-organoetan parte hartuz; eskaerak bilduz; horiek ebaluatuz, exekutatu, informatuz eta administrazio eskudun nahiz zeresana duten eragileei helaraziz; eta proiektuen aholkularitza teknikoaz eta plangintzaren, finantzaketaren eta exekuzioaren segimendua eginez, besteak beste.

Nasuvinsak eta Cederna-Garalurrek helburu horiek betetzen dituzte lurralde-ekipoa entitate bakoitzetik osatzen duten bi teknikarien bitartez.

Bi entitateen jarduketak bideratzeko tresna juridikoak.

NASUVINSA – LURSAREA:

Transferentzia arruntaren bidez Nafarroan Lurralde Garapen Jasangarriko proiektu estrategikoak garatzeko. Adierazi behar da transferentzia honen bidez finantzatzen diren jarduketak ez direla mugatzen Pirinioen lurralde-dinamizaziora, baizik eta bestelako jarduketak barne hartzen dituztela, hala nola lankidetzak, koordinazioa eta sinergiasorrera lurraldeko entitateen artean lurraldearen kudeaketa jasangarria lortzeko edo Nafarroako eskualdeetan lurralde-garapen jasangarriko proiektuak identifikatzeko.

CEDERNA

Zuzeneko dirulaguntza emanez, entitateak Pirinioetako Planarekin lotuta egiten duen jarduerari euskarri ekonomikoa emateko; jarduera zehazten da urtero sinatzen den hitzarmenean adierazitako jarduketetan.

Dirulaguntza zuzenean ematea Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 17.2.a) artikuluan xedatutakoari lotzen zaio.

Lotutako aurrekontuari dagokionez:

URTEA	2020	2021	2022	2023	2024
CEDERNA	50.000 €.	100.000 €.	95.000 €.	95.000 €.	95.000 €.
LURSAREA	125.000 €.	250.000 €.	250.000 €.	250.000 €.	350.000 €.

Lurralde-lantaldea 2020ko ekainean hasi zen jardueran, horregatik aurrekontu-ekitaldiko aurrekontua txikiagoa izan zen.

3. Zenbat kontratu publiko edo dirulaguntza finantzatu dira Pirinioetako Planaren esparruan 2019az geroztik? Zeintzuk izan dira esleitze-prozedurak eta konkurrentzia-irizpideak?

Kontratu publikoak

Urtero era anitzetako jarduketak egiten dira Pirinioetako Plana garatzeko, normalean eta zenbatekoaren arabera, munta txikiko kontratueterako araubide bereziaren bitartez eratzen dira, Kontratu Publikoen Foru Legearen 81. artikuluekin bat etorritik. Jarduketak bide-orrian (lehen, plangintza) zehaztuta daude, eta urterokoen arabera zehazten dira 202504680_1_MBC erantzun-excelean.

Dirulaguntzak

Lehen esandako Excelean Pirinioetako lurralde-eremuan izapidetutako dirulaguntza guztiak identifikatzen dira. Laburbilduz, bi prozedura mota izan dira:

1. Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 17.2 artikuluko zuzeneko ematea. Dirulaguntza jasotzen duen entitateak eta hura sustatzen duen Zuzendaritza Nagusiak sinatutako hitzarmenarekin eratzen dira dirulaguntzak. Hitzarmenean bi alderdientzako betebeharrak eta eskubideak eratzen dira.

2. Oinarri arautzaileekin araututako deialdi publikoen ondoriozko dirulaguntzak:

a) 331004709921100 "MRR Pirinioetako oreka eta ekitaterrako lurralde-proiektua: ekintzailatza eta mikroenpresak, bultzada programa eta 331007709921102 "MRR Pirinioetako oreka eta ekitaterrako lurralde-proiektua: ekintzailatza eta mikroenpresak inbertsioen programa". Bi partidetatik heldu da dirulaguntzen deialdi hau: berronena eta ekitatearen xede duten lurralde proiektu berriak finantzatzeko dirulaguntzak, zeinek ekonomia berdea eta/edo digitala sustatuko duten ekintzailatza eta mikroenpresen bitartez, Pirinioetako Planaren lurralde eremuko Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan. Dirulaguntzen deialdia 2022. urtean (119. NAO, 2022ko ekainaren 16koa) eta 2023. urtean (55. NAO, 2023ko martxoaren 17koa) izapidetu da.

b) 331007709921100 "Suspertu Plana. Pirinioetako Planeko berrikuntzako proiektu ekintzailatzaileetarako dirulaguntzak" (2021. urtea) eta 214007709922100 "Dirulaguntzak berrikuntzako ekintzailatzaile inbertitzeko Pirinioetako Plana" (2024. urtea). Dirulaguntza hau deitzen da: "Dirulaguntzak ekintzailatzaile inbertitzeko Pirinioetako Planaren lurraldearen eremuan". Dirulaguntza bera da, bi urtetan izapidetua eta onuradun desberdinekin. Deialdiak hauetan argitaratu dira: 112. NAO, 2021eko maiatzaren 14koa eta 145. NAO, 2024ko uztailaren 16koa.

c) 331007800921100 "PIRIBIZI dirulaguntzak: Pirinioetan erronka demografikoari heltzea eta 331004809921100" (2022. urtea) eta (E) "PIRIBIZI dirulaguntzak: Pirinioetan erronka demografikoari heltzea" (2023. urtea). Piribizi, Pirinioetako Planaren lurralde-eremuan populazioa finkatzeko etxebizitza eskuratzen laguntzeko dirulaguntza ondoz ondoko bi urtetan izapidetu da. Deialdia hemen ikusgai: 73. NAO, 2022ko apirilaren 12koa eta 102. NAO, 2023ko maiatzaren 16koa.

d) 331007609921104 Pirinioetako inbertsio-proiektuetarako dirulaguntzen Suspertu Plana (toki-entitateak) eta 331007609921104 Pirinioetako inbertsio-proiektuetarako dirulaguntzak (toki-entitateak) partiden kontura, honako deialdi hau izapidetzen da: Pirinioetako lurralde-eremuan inskribatutako toki-entitateetarako dirulaguntzak, 2021, 2022 eta 2023ko urteetan

Lurralde Garapen Jasangarriko proiektuetako inbertsioak egiteko. 112. NAO, 2021eko maiatzaren 14koa.

e) 2022., 2023. eta 2024. urteetan Pirinioetako toki-entitateetarako dirulaguntza deialdia izapidetu da Pirinioetako Planarekin lotutako ekintzak finantzatzeko. Urtero izapidetzen den deialdia da. Oinarri arautzaile berak daude urtero, adibide bat dago 18. NAO, 2022ko urtarrilaren 26koan.

Adierazitako dirulaguntza guztiak norgehiagoka-prozeduraren bidez izapidetzen dira. Oinarrietan balorazio-irizpideak finkatzen dira, irizpide objektiboak dira beti. Eta balorazioaren ondotik hobekien baloratutako eskaerak dira adjudikaziodun Igorritako Excelean urteroko bakoitzaren ara-

bera ageri dira deialdietan onuradun izandako pertsonak.

– Pirinioetako Plana onetsi zenetik, Nafarroako Gobernuak zer txosten (jarraipen-txosten, inpaktu-ebaluazioko txosten edo emaitza-neurketako txosten) egin du Pirinioetako Planari buruz?

Txosten hauek daude:

- I.I eranskina. 2020ko urteko biltzarraren akta.
- I.II eranskina. 2021eko jarduketa-plana.
- I.III eranskina. 2021eko urteko biltzarraren akta.
- I.IV eranskina. 2022ko jarduketa-plana.
- I.V eranskina. 2022ko urteko biltzarraren akta.
- I.VI eranskina. 2023ko jarduketa-plana.
- I.VII eranskina. 2023ko urteko biltzarraren akta.
- I.VIII eranskina. Ebaluazioaren memoria, 2020-2023.
- I.IX eranskina. 2024ko urteko biltzarraren akta.
- I.X eranskina. 2025eko urteko biltzarraren akta (onesteko zain)
- I.XI eranskina. 2025eko bide-orria.

2025. urtean Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiak Nasuvinsa-Lursareari eskatu dio Pirinioetako Planaren ebaluazioa egiteko, helburu hauekin:

i) Ezagutza baliagarria sortzea Pirinioetako Planaren funtzionamenduari eta emaitzei buruzko erabakiak hartzeko, Nafarroako despopulazioaren kontrako borrokarako esku-hartzeen arloko ebidentzia ere sor dadin.

ii) ii) Pirinioetako Planaren eta despopulazioaren ardatz duten bestelako esku-hartzeen efikazia eta efizientzia hobetzea.

iii) iii) Sektore publikoak herritarrei kontu eman diezaien erraztea. Pirinioetako Plana berrikusteko ebaluazio plana diseinuaren, ezarpenaren eta emaitzen gainekoa da aldi berean. (prestatzen)

Gainera, 2025. urtean Pirinioetako Biltzarrean 2025eko bide-orria aurkeztu eta onetsi zen (I.XI eranskina); abian diren jarduketan aurrerapenaren hileko jarraipena egiteko erabiltzen da dokumentu hori.

– Pirinioetako Mahaian zer funtzionamendu-arau, hautaketa-irizpide, agintaldi-iraupen eta kide-txandakatze daude indarrean gaur egun? Ba al dago haren bileren eta erabakien akta publikorik?

Pirinioetako Planaren kogobernantza-dokumentua (II. eranskina) erantsi da; hitzez hitz hauxe dio: “Pirinioetako Mahaia (PM) toki-entitateak elkartzen eta koordinatzen ditu, eta barne hartzen ditu antolamendu-eskemaren barruan eremuko gizarte-organismoak eta herritarrik”. Dokumentuan hauxe ezartzen da:

Kideak:

- Aezkoako, Erronkariko, Artziko, Erroko eta Zaraitzuko ibarretako bakoitzaren 2 ordezkari.

- Aurizko, Orreagako, Orotz-Beteluko, Luzaideko eta Nabaskozeko udaletako ordezkari bana.

Eginkizunak:

- Toki-erakundearen ordezkariak publikoak.
- Lurraldearen dinamizazioa eta batzorde sektorialen ekintzen lehenespena.

Honako hauen onespina:

- Aitzineko urteko urteko memoria.
- Urteko aurrekontua.
- Periodikotasuna: hiru hilekoa*.

*Kogobernantzako dokumentuan ezartzen da Mahaia bilerak hiru hilean behin egiten direla, baina hilean behin bederen egin dira bilerak 2025ean.

Haren bileren eta erabakien akta publikoren berririk ez dugu. Komeni da argitzea Pirinioetako Mahaia ez dela Nafarroako Gobernuaren kide anitzeko organo bat; hala bada, Planaren eremu geografikoko toki-entitateen ordezkariak osatua dago, eta informaziorik ere ez dugu haren barneko funtzionamendu-arauei, hautatzeko irizpideei, agintaldiaren iraupenari eta kideen txandaketari buruz.

2024ko uztailetik Pirinioetako Mahaia eta Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusia hileroko biltzen dira Cederna-Garalur eta Nasuvinsa-Lursarearekin batera, jarduketan etengabeko jarraipena egiteko.

Bileren akta dago, eta hartzen dituzten erabakiak jasotzen dituzte bertan.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 215. artikuluan xedatutakoa betez. Horrez gain, datuak babesteko

legedian ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. artikuluan jasotako xedeetarako soilik erabiltzen ahalko da emandako edukia, eta betebeharra egonen da Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoari men egiteko.

Iruñean, 2025eko irailaren 24an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariaren erantzuna

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak idatzizko erantzunerako 11-25/PES-00313 galdera egin du Pirinioetako Planari esleitutako funtsei buruz. Hona hemen Nafarroako Gobernuaren Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Lurralde Kohesiorako Departamentuak exekutatzen du Pirinioetako Planaren finantzaketa, eta jadanik bidali du horri buruzko informazio guztia.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatzen dena betez.

Iruñean, 2025eko urriaren 2an

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

11-25/PES-00314. Galdera, Unibertsitateari buruzko foru-lege proiektua onesteari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Unibertsitateari buruzko foru-lege proiektua onesteari Unibertsitateari buruzko foru-lege proiektua onesteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko irailaren 5eko 98. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko irailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak PES-11-25/00314 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, Unibertsitateen Foru Legeari buruz. Bada, Nafarroako Gobernu

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut galderari erantzunez:

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuaren helburua da bilkura-aldi honetan Nafarroako Unibertsitate Sistemaren Foru Legea onestea unibertsitate-komunitate osoarekin adostuta.

Onetsi aitzinetik, eta 11-25/PEI-00726 eskaeran adierazi bezala urte honetan zehar zirriborro bat egitea aurreikusita dago, zeina esku hartzen duten eragile guztiei aurkeztuko baitzaie.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko irailaren 23an

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Juan Luis García Martín

11-25/PES-00315. Galdera, Ultzaman bidaidetik gabeko adingabe migratzaileen zentro bat irekitzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak Ultzaman bidaidetik gabeko adingabe migratzaileen zentro bat irekitzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko irailaren 12ko 102. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko irailaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak 11-25/PES-00315 galdera hau egin du, idatziz erantzun dakion. Hona Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak ematen dion informazioa:

Espainiako Gobernuak Etxebizitzako, Gazterriko eta Migrazio Politiketako Departamentuko kabinetei eman zion asilo-eskatzaile diren migratzaile adingabe bidaidetegabeak iritsi izanaren berri. Dauka-

gun informazioaren arabera, berri-emate hori 2025eko abuztuaren 14an egin zen; bai posta elektronikoz, bai erregistroaren bitartez. Jakinarazpen horri dagokion dokumentazioa jadanik helarazi zitzaion parlamentariari, 11-25/PEI-00753 espedientean.

Erantzun honen egunean, asilo-baldintzarekin iritsitako 17 adingabe daude.

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentu honek ez du informaziorik jasotzen asilo-eskatzaile diren migratzaile adingabe bidaidetegabeen lekualdatzei buruz, informazio hori zuzenean helarazten baitzaio zerbitzuaren kudeatzaile den "Bake, armagabetze eta askatasunaren aldeko Mugimendua" entitateari.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko irailaren 29an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-25/PES-00316. Galdera, Nafarroako Etxebizitza Hutsen Erregistroa berraktibatze eta eguneratzeko tresna informatikoari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mikel Zabaleta Aramendia jaunak Nafarroako Etxebizitza Hutsen Erregistroa berraktibatze eta eguneratzeko tresna informatikoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko irailaren 12ko 102. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko irailaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendia jaunak 11-25/PES-000316 galdera egin du, idatziz erantzun dakion. Hona hemen Nafarroako Gobernuaren Etxebizitzako, Gazterriko eta Migrazio Politiketako kontseilariak horren harira ematen dion informazioa:

Galdera: Zertan da Nafarroako Etxebizitza Hutsen Erregistroa berriz aktibatze eta erregistro hori automatikoki eguneratzeko tresna informatikoaren garapena?

Gaur egun, Etxebizitza Zuzendaritza Nagusia, Telekomunikazioetako eta Digitalizazioko Zuzendaritza Nagusiarekin lankidetzan (TDZN), lanean ari da oraindik etxebizitza hutsak antzemateko. Egia bada ere azken hilabeteotan aitzinamendu handiak lortu direla, hobetzeko tarte zabala gelditzen da oraindik.

Aplikazioaren helburu nagusia da antzematea, ur- eta elektrizitate-kontsumoen datuak gurutzatuz, a priori eta bestelako informaziorik gabe hutsik dauden etxebizitzak. Tresna bada hori antzemateko gauza, baina garapen handiagoa behar du informazio zehatzagoa eskuratzeko. Telekomunikazioetako eta Digitalizazioko Zuzendaritza Nagusia une hauetan egiten ari den lanaren bidez plataformari behar diren garapenak ematen ari zaizkio hutsik dauden etxebizitzaren detekzioa finagoa izan dadin.

Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuak zer epe darabil gogoan tresna hori abian jartzeko?

Zaila da Aplikazio informatikoak garatzearen arloan behin betiko epeak ezartzea, batez ere Telekomunikazioetako eta Digitalizazioko Zuzendaritza Nagusia egiten ari den lan-erritmoaren mende gaudelako. Nolanahi ere, uste dugu lehen basea itxita egon litekeela 2026ko hasierarako. Une horretan aski tresna izanen ditugu aplikazioak ematen digun informazioa ustiatzeko eta antzematen dituen etxebizitzak hutsen jarraipena egiteko.

Aurreikusita dago, orobat, 2026ko lehen hiru hilabeteetan zehar, etxebizitza hutsei buruzko datuak etxebizitzaren behatokiaren bitartez ematea, lehen bertsioan ordurako edo jardueran egotea espero baita.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko irailaren 25ean

Hirugarren lehendakariorde eta Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria:
Begoña Alfaro García